

II. DIALEKTOLOGIA JARDUNALDIAK:  
«Ahozko euskara: dakiguna eta darabilguna»

*Uharte, 2005-IX-28 eta 29*

## **AHOZKO EUSKARA: DAKIGUNA ETA DARABILGUNA**

*Juan Luis Goikoetxea Arrieta*

Izenburuan, behar bada, dakiguna eta darabilguna baino irakasten duguna eta erabiltzen duguna jarri beharko genukeen. Hala ere, quod scripsi scripsi lema urrun hari eutsi diogu. Horretarako arrazoia irakaskuntzako sarean aurkitu dugu, zeren ebaluaketa sisteman –zoritzarrez– euskaldunak dakiena bakarrik baloratzen baita eta neurri oso txikian baino ez darabilena. Horregatik lotu gatzazkio dakiguna eta darabilguna izenburuari.

### **1. ATARIKOAK**

Hizketaren ebaluaketa xede duen txosten honek ikasgelan egin arren indar, begiak erne dituen oro aise ohartzen da euskarak zein gizarte motatan dirauen, zeintzuk diren Axularren hizkuntzak dituen gune likidoak, zeintzuk solidoak, edo inoiz etereoak. Oso ondo dakigu lan jardunaldietako partehartzaileok gure neska-mutilek erdietsiko duten hizkuntzaren garapena erabat loturik bizi dela inguruak duen hizkuntzaren erabilerarekin, ez direla behar bezain sarri edo usu euskaraz mintzo, edo mintzagai batzuen gainean erosoago jardun daitezkeela erdaraz euskaraz baino. Hala ere, ikerlan honetarako ikasgelara mugatu dugu ebaluaketa, oharturik, beti ere, gizarteaz gain ikastetxean bertan ere jolas orduak, atsedenaldiak eta gainerako egoera naturalak behatzea oinarritzko dela.

Ahokotasunaz mintzatzen garenean, ez dugu ahanzten ezen gaur egun ez dela gure ikasleen artean idazkera ezagutzen ez duenik, beraz, ezin mintza gaitzkeela ahozko kultura primarioaz, oraindik ere honenbeste euskaldunek bizi dutenaz.

Ez genuke ahanzi behar, behin ere, giza hizkuntzako arau gramatikalak erabili egiten direla lehenik eta geroago formulatu. Bestalde, testua irakurtzea hots bihurtzea da, dela boz goraz edo irudimenean. Alde horretatik idazkerak ezin bazter lezake ahokotasuna. Ikerlan honetan baieztatuko dugunez, ebaluaketa ahozkoa jasotzetik abiatu arren, idaztea, transkribatzea ezinbesteko da ahozkoa bera ebaluatu ahal izateko.

## 2. IRAKASLEA AHOTAN HARTUTA

Ahozkoan irakaslea ahotan hartzea ezinbestekoa da, ez lehengo erara gelako ahots bakarra izan dadin, baina bai beti bezala koordinatzaile delako.

### 2.1. Irakasleen ezagutzak

Nahiz eta guk ahozkoasuna lantzeko metodologia jakina azaldu gaurko saioan, argi-argi konturatzen gara ezin mintza gaitzkeela irakaste ortodoxiaz, ezen proposatzen dugun helburura iristeko bideak anitzak baitira.

Dakigunez, metodoa osatzen dute: ikas helburuak ikasleei ezartzen zaizkienak; irakasleak gelan dituen jokabideak horiek eskuratzeko; gehi prozedurak eta tresneriak eta ikas materialek. Gainera, neurpide jakinak ere sartzen dira ikas helburuak noraino lortu diren aztertzeko. Gu pozik geundeke aipatuko ditugun alderdi guztien artean ematen den batasuna eta koherentzia erakustea erdietsiko bagenu. Gelako metodologiaren batasun, koherentzia hau, sarri askotan irakaslearen bizkar geratzen da, hartzen dituelako, batetik erakunde ofizialaren programa; bestetik, argitaletxearen testuliburua; eta gero ikastetxeko erabakiak. Hor da irakaslea nor izan beharreko. Egoera horretan, inoiz irakasleak berak sortzen du metodoa, tradizio desberdinetako baliabideez eta bere esperientziaz baliaturik.

Bestalde, irakaslea metodoen oinarrian diren zientziak ezagutu beharreko ere aurkitzen da:

Linguistika beharrezkoa du: fonetika, fonologia, gramatika, pragmatika, semantika, lexikologia, berbaldi analisia, baita linguistika aplikatua ere, zeren linguistika aplikatuaren laguntzaz aukera eta ordena baitaitezke programazioak.

Psikolinguistikak, bere aldetik, eduki horiek nola eskuraten diren azalduko digu.

Psikopedagogiak, irakastearen urratsez urratseko analisia eskainiko digu.

Horrez gain, teknologiaren ezagutza ere beharrezko zaio irakasleari: ordenagailua, minidiska, bideokamera nahiz ahozkoasun sekundarioa, irratikoa, telefono mugikorretakoa, telebistakoa, zeinek idaztea eta inprimatzea behar duten existitzeko.

Soziologiak, faktore sozialak kontuan hartzera garamatza, hizkuntza horren estatusera; gainera, psikolinguistikarekin batera estatus horrek ikasleengan izango duen eragina aztertuko du.

Elebitasuna ere bai, gure testuingururako suposatzen duen ezagutzarengatik.

Beraz, irakaslearentzat ez da zeregin xamurra aipaturiko faktore guztiak eta gehiago aintzat harturik hizkuntza ikasgelan irakastea.

Hortaz, ziurtasun osoz baiezta genezake ikasketa prozesuan irakaslearen eginkizuna aldagairik garrantzitsuena dela, baita ahozkoa irakastean ere.

Beste arlo batzuk alde batera lagata froga genezake, irakasleak bere burua ikaslearen ikasketan konprometitzeak eta ikasleok motibatzeak eragin zuzena duela emaitzetan, baita ahozkoetan ere.

Horrekin guztiarekin esaten ari garena da, irakasle modernoaren betebeharrak ikasleei informazioa ematea baino, ikasketako jardueren zuzendari izatea dela.

## **2.2. Irakasleen hizketa**

Ahokora etorririk, onartzen dugu ikasgelako hizketarik gehiena irakasleak betetzen duela. Baliokoa da jokabide hori ikasteko? Guk ezagutzen ditugun irakasleak onak gertatu badira, kontu kontari bikainak izan direlako da, hizkera liluragarrikoak –izan ere horixe izan da mendeetan metodorik oinarrizkoena eta–. Gure egunotan, lastimez, neurri handian lehen hezkuntzara murriztuta geratu da.

Egin behar dena da bereiztu irakaslearen hizketa egokiaren eta desegokiaren artean. Badakigu, esate baterako, irakaslearen hizketak klase osoaren aurrean badituela erabilera batzuk: ideia berrien azalpena, oharrak ematea, laburpenak egitea, istorioak kontatzea...

Azken baten, irakaslearen hizketa musikako tresnaren modukoa da. Erabil zenezake oso gauza desberdinak egiteko; modula zenezake bilatzen duzun helbururako. Baina, zoritxarrez, gutariko askok melodia bat edo bi baino ez ditugu ezagutzen.

## **3. IKASLEAREN HIZKUNTZAZ JABETZEKO PROZESUA**

Ikaslearen hizkuntzaz jabetzeko prozesuan, helburu bi izan ditugu gogon: bata, ahozko berbeta bera ezagutzea eta indartzea; bestea, hizketa ikasketak akademikoekin lotzea Tough (1977), hots tresnatzat erabiltzea ezagutza akademikoak ulertu eta adierazteko.

Umea haurtzaindegira datorrenean –hizkuntza ez badaki– murgiltze eredu irakasten hasten gaitzaizkio; jakin badaki, atxikitze ereduari lotzen gaitzaizkio, beti ere, hasieratik euskaraz mintzatuz. Ordea, euskara ikasgai izateaz gainera tresna ere badenez, beste asignatura batzuk ikasteko –berdin da zein

mailatako euskaran aurkitzen den— euskaraz irakasten zaizkio matematika, gizarte arloa nahiz gorputz heziketa. Ez gara zain egoten honenbesteko euskara maila lor dezan asignaturak irakasten hasteko. Ondorioz, oso erraz ulertzen da ikasle anitz euskara eskasa tresna dela matematika lantzen aritzea. Futboleko emaitzetan «Hiru eta bat» baino «Hiru bat» esaten badute, hor akatsa finkatuz, gorputza hartuz joango da.

Era berean, euskara bera mailetan gora joan ahala behikular izateari utzi gabe, ikasgaiago bilakatzen da fisika edo matematikaren erakoa. Nork jorratuko du bereziki ahozkoa egoera honetan? Ezen hizkuntzaren jabekuntza ez baitzen burutu behin betiko han beheko mailaren baten, zenbait egitura goi mailetaraino azaldu ere ez dira egiten eta. Hala ere, unibertsitateko irakasleek hara ezkerro hizkuntza erabat ikasita edukitzea eskatu ohi dute. Ez ote da ausardia handiegia! Imanol Berriatuak aipatu ohi zuenez —hil zela 1986an, dira 25 urte— Israeleko ministroek telebistan direnean ere oraindik inoiz akatsak egiten dituzte, geuk ingelesean bezala. Elkarriketako trebetasunen garapenak heldua izan arte dirau eta ez da amaitzen sekula. Hizkuntzen irakaskintzako arriskua beti izan da denbora mugatuko kurtso bat osotzat hartzea. Horrek beti ekarri izan du ondorio legez, tarte horretan forma linguistiko guztiak sartzeko ahalegina egitea, gehiago arduratuz irakatsiko diren elementuen kopuruez, beharko luketen sakontasunaz baino.

Horrela jokaturik arazo bi behintzat sortuko zaizkigu: Bata, gramatika-koa, euskarazko gramatika zuzen ez daukanak, osorik ez daukanak, espainolezkoa zein frantsesezkoa ditu eskura eta haietara joko du: «Noa autobusera». Bestea, erabilerakoa irakasgai guztietako irakasleek ez badiote jarraitzen euren gaiari dagokien euskara hobetzen, euskarako mintegikoek ezin zuzenduko dutela arlo horretakoa.

### **3.1. Ahozkoaren irakaskuntza implizitoa eta esplizitoa**

Irakaskuntza implizitoaren defendatzaileak, gehituko litzaizkieke uste dutenei ahozko hizkera banatu egiten dela eskolan, nolabait esateko, irakasle guztien artean. Ostera, irakaskuntza esplizitoaren aldekoak, adibiderako pentsatzen dute hizkuntzaren ikasketa ohitura bat baino zer edo zer gehiago dela, eta ondorioz, haren irakaskuntzak esplizito izan behar duela, trebetasun intelektualei dagokien eran.

Guk ahozko berbeta modu implizitoan eta esplizitoan irakastea proposatzen dugu; ahozkoa klase guztietan eta irakasle guztiek lantzea; modu esplizitoan, ahozkoa irakastea Hizkuntza eta Literaturakoei utzirik.

### 3.2. Irakasle guztiak hizkuntza irakasle

Irakasle guztiak dakite kultura transmititzailerik direna. Horrexegatik, euren berbakera eredu eta erreferentzi gune garrantzitsua da ikasleentzat. Ez dute, beraz, arazo larriegirik ahozko berbetaren irakaskuntza inplizitoaz berba egiten zaienean. Bestalde, Krashen (1981) eta beste teoriko batzuk ados dira honetan, uste delako, edozein ikasgelatako hartu eman berbalak egokiak direla ikasleen komunikazio-trebetasunak hobetzeko.

Ahozko berbeta funtzionala irakasle guztiak irakatsi ahal izateko, irakasleen hasierako borondatea ezinbestekoa da, baita koordinaturik lan egitea ere. Gure esperientziak diotenez, gaian aditua den pertsonaren bat ere behar da irakasleen taldean. Gainera, gai desberdinetako irakasleek ere oinarri-oinarrizko formakuntza jaso beharra dute ahozko berbeta irakasteko metodologia eta edukien gainean, esate baterako, Ingurunean gaian agertzen den eztabaida probetxuz eramateko.

Ondo jarduteko, metodologia parte hartzaileari egin beharko litzaioke lekua, irakaslearena izan ez dadin input bakarra ikasgelan. Hortxe agertzen zaigu etxetik euskaldun datozen neska-mutilen eta erdaldun datozenen arteko ekarri desberdina, atxikitze-eredukoek –etxetik euskaldunek– jarioan, egokitasunean, erregistroetan lagunduko digute, murgiltze-eredukoek, –hau da, familia erdaldunetatik etorriek– batez ere, gaitasun komunikatiboan.

Eskolan beti eta klase guztietan ematen den ahozko berbetaren irakaskuntza inplizitoaz gainera, beharrezkoa da ahozkoaren irakaskuntza esplizitoa ere, alegia, hizkuntza eta literaturako irakasleak gauzatzen duena. Zeren esperientziatik baitakigu Frans Van Passel-ek zioena: «Badirudi ezen hamabi urtetik beherako haurrek baino ezin beregana dezaketela hizkuntza bat era intuitiboz eta imitatibo soilez». Van Passel (1973:62).

Adinekoak, aldiz, ezin ikas dezake ezpada modu arrazional eta logikoz». Beraz, nahitaezko da irakasleak azalpenak nahiz zuzenketak egitea. Gainera, beroni dagokio beste irakasleen ahozkorako kriterioak jartzea ere.

#### 3.2.1. Lau hizkuntza trebetasunen irakaskuntza

Hizkuntza eta Literaturako irakasleei dagokie

	Atxikitze-eredua	Murgiltze-eredua
1 Entzumena	Euskalkia eta batua	Euskalkia eta batua
2 Mintzamina	»	Batua (Beti euskalkitua)
3 Irakurmena	»	Euskalkia eta batua
4 Idazmena	»	Batua

Laukietan ikusten dugunez, gela berean dira eredu bietakoak, bitzuak euskaldun osoak izateko.

Ezin ahaztuko dugu atxikitze-eredurako ukipenean bizi direla euskara batua eta euskalkia pertsona berak txandaka darabiltzanean (Weinreich 1979) eta egoera diglosikoan –Ferguson-ek diglosia hizkuntza eta dialektoaren arteko harremanak azaltzeko sortu zen eta–.

Bestalde, gogoan hartu behar da euskalkia heteronomoa dela, zerbaiten –kia, hau da euskara bakarrarena.

Idazmena aztertzen badugu, aipatu beharko dugu atxikitze-ereduan ardatza euskara batuak eramango duela eta euskalkia aldamenen joango dela. Horrexegatik da egokia euskara batua ardatz dela lantzea euskalkia, ezen 12 urte arte euskalkian bakarrik ikasiez gero, ez bailitzateke ohartuko ikaslea euskalkikotzat hartzen dituen elementu ugari euskara batuko ere badirela.

Planteamendua ez da adin batera arte euskalkia eta ostean euskara batua, baizik batua ardatz bai, baina paralelismo diglosikoan euskalkia ere ikasiz. Horrenbestez, umeak hiru urterik hamazortzira etengabe behar du euskalkia eta batua joratu.

Baina euskalkia beti ikasi behar da, zeren euskara batua ikasteak ez baitakar euskalkian alfabetatzea. Euskalkia ikasten ez bada, etxekoa osotu barik gelditzen da, fosilizatuta.

Ahozkoan dihardugunean atxikitze-ereduan, ardatza ikasleak dakarren berrbeta izango da haurtzarotik hasi eta batxilerra burutu artean.

### ***3.1.2. Hizkuntza kontzeptu berrien sorkuntzan***

Zelan erabiltzen dugu hizkuntza kontzeptu berriak sortzeko? Eskolako ikasleek hizketaren bitartez zelan ikasten duten azaltzeko Britainiako autorengana joko dugu. Ulertarazi digutenetariko gauza bat da, garrantzitsua dela norbera ikasten ari denaz berba egitea, zeren orduan baita ueña zeinetan guk kontzeptu berria linguistikoki adierazten dugun eta orduantxe baita guk gradualki hura garatzen dugun ueña.

Baliteke kontzeptua –neurri baten– geure garunetan garatzea, baina gu hasi arte hori adierazten linguistikoki ez dugu ezagutzen zein argi –edo ez argi– garatuta dagoen. Barnes-ek (1975) erakutsi zuen ikasleak talde txikiak kontzeptu bati buruz mintzatzen ari direla grabatzen dituzunean eta gradualki kontzeptu hori berdoitzen, eta gero hizketa transkribatzen dutenean, ikus zenezakeela ikasleek nola erabiltzen duten ahozko hizketa beraien pentsamendua garatzeko. Kontzeptu erdi formatua beraren gainean hitz eginez jartzen dute agerian, eta ostean, moldatu egiten dute hizketaren bidez, jarraian berriz

barneratzeko; azkenean, apur bat gehiago hitz egiten dute oraindik zehaztutako gera dadin.

Kontzeptuei buruzko hizketa/elkarrizketa honetan oinarritzkoa da solaskidearen funtzioa, entzule moduan betetzen duena. Entzulea bitzuek da: Batetik kontzeptuen gainean hitz egiteko arrazoia, bestetik, hiztunarentzat isla kontzeptua zenbateraino dagoen ondo eratu frogatzeko.

Ahozko hizketa lantzeaz dihardugunez, prozesu zikliko honetarako, hizkuntzaren bidezko barneratze eta kanporatzerako egokia da erdi osatuko hizkuntza, etenduna dei genezakeena. Izan ere elkarrizketa halakoa baita. Praktikarik dakigu ikasleen arteko eskola elkarrizketak perpausa amaigabeekin eginak direna, halako anitz erabilirik sortuak: *baliteke, behar bada, agian*, edo esaldi berpentsatuekin: *A ez! Esan dudana oker dago, zera...* Hori hizketa zirriborrotua da, Barnesek (1975) *esplorazio hizketa* deitzen duena. Geuk ere, horrenbestez, hizketa molde hau egokitzen hartzen dugu.

Hauxe da elkarrizketa modurik onena kontzeptu berriak garatzeko. Ez genuke pentsatu behar forma osatu gabea delako, nolabait gogoko ez duguna dela. Alderantziz, balioa eman egin behar genioke. Eta sartu behar genituzke testuinguruan, zeinetan ikasleak naturalki mintza daitezten. Ez genieke eskatu behar ikasleei goizegi erabil dezaten hizketa biribildua, dotorea eta zehatza. Horrek kontzeptuen garapena blokea dezake eta.

Gogoan dugun *esplorazio hizketa* hau hobeto garatzen da talde txikietan, ikasgela osoan baino. Eta askotan hobeto irakasle barik irakaslearekin baino. Beti ere kontuan izanik: *esplorazio hizketa* ez dela gauzatzen, hain zuzen, neska-mutilak taldean ipini eta eskatzen badiezu: «Mintza zaitezte zerbaiti buruz». Oso alde handia dago hizketa sozialaren artean eta eskolako gaiei buruzkoaren artean. Baita eskolako hizketa kaotiko edo alferriketaren artean eta helburudun ikasketako hizketaren artean. Azken hau da guk gura duguna eta berau gerta dadin, ikasleak prestatu egin behar ditugu eta gero gidatu gauzatzera, tentuz arituz talde atazak arduraz eraiki ditzaten.

Ahozkoaren ondoren datorren idazketak, aldiz, ahazko hizketak ez bezalako betekizuna dauka. Idazketa, batez ere, azken faserako da egokia, kontzeptuak doitu eta zehazteko.

Dena dela, nekez uka genezake irakaslearen artean kontzeptuak ezagutzen baditu ikasle multzo bat ikasketetan aurrera doala, hizkuntza molde okerrak erabili arren. Horrela, ordea, azken fasean ere hizketa baldarrez, ez osatuz badirau, noraino onar genitzake molde horretan azalduko kontzeptuak? Historiako azterketan idatz baleza: *Kaisar Bruto hil zuen* ongi jarriko genioke? Zergatik? Ikasleak badaki ala usteetatik balioztatzen dugu?



### 3.1.3. *Adierazteko gai zarena dakizu*

Ingalaterrako James Brittonek eta beste ikerlari batzuek iradokitzen dute, kontzeptu jakin baten ikasketa –edozein irakasgaitan– ez dela lortzen harik eta kontzeptu horren gainean berba egiteko edo idazteko gai izan arte, hau da, geure ahozko edo idatzizko diskurtsoan integratzen dugun arte. Cassany (1991:184).

Gai bat badakigu, gogoan duguna, ikasitakoa berbalizatzeke gauza garenean. Zelan berbalizatzen dugu? Ba, geure berbak erabiliz, geure terminologiara ekarrita. Ez buruz ikasia errepikatuta, ezen ideiari eusten baitiogu, baina adierazi nork bere hitzen bidez.

Hara oinarria, ahozko testuak irakasle guztiek eska eta lan ditzaten. Baina arterago aipatu bezala, euskara eskasa zenbateraino da egokitzen hartzekoa? Ahozkoari gatxeziolarik, baliozkotzat hartuko genuke euskalkian nahiz euskara batuan mintzatzea, jakinik, beti ere, zientzia horretako ideolektoak eta molde asko inposatuko zaizkiola ikasleari.

## 4. EBALUAKETA

Hizkuntzaren ebaluazioaren gaia XX. mende erditik gora dator. Lehen test konduktistatik hona –(ITPA): *Trebetasun Psikolinguistikoetako Illinois Testetik* hona– Chomsky-k sintaxiaren garapenari garrantzia ematen dion garaia dugu; baita alde semantikoaren garrantzia indartzen duen Piaget-en inguruko sasoi ere edo, ostean, testuinguruaren balioa azpimarratzen duen pragmatikaren ingurumaria ere. Edozein kasutan, hizkuntzaren ulerkera hauek erabat loturik joan ohi dira ikaslearen hizkuntzaren jabetzeaz. Finean, dena den, aitortu beharrean gara, ez dela teoriarik behar bezain bestean azaltzea lortzen duenik haurrak nola jasotzen eta garatzen duen hizkuntza.

Ebaluaketa zereginerako badira unibertsalki ezagunak diren test estandarrik, gorago aipaturiko ITPAren gisakoak, erakundeek-eta gure ikastetxeetan pasatzen dituztenak. Guk, ordea, estandarizatu gabeko frogak aurkezten ditugu hemen. Berauetan hiru estrategia desberdin erabiltzen ditugu:

### 4.1. BILKETA, TRANSKRIPZIOA ETA HIZKUNTZA LAGINEN ANALISIA

Berezko hizketaren produkzioa da erabiltzen dugun ebaluazio estrategia. Behin paperera transkribatzen dugunean, araketa mota ugari eraman dezakegu aurrera: fonologikoa, morfosintaktikoa, semantikoa, pragmatikoa.

#### **4.1.1. Laginen bilketa**

Laginak bideoan graba daitezke edo magnetofoiari. Bideoaren alde ona keinuak jasotzea da. Transkripzio zuzenak –Resurreccion Maria Azkuek-eta egiten zituztenak– baditu oztopo bi: esaten den guztia nekez bil daitekeelako, eta atzera jota berriro ezin entzun daitekeelako.

#### **4.1.2. Transkripzioa**

Transkripzioa ohiko erara bidera daitekeen arren, badira gaur egun hizkuntza laginak aztertzekeo programa informatikoak ere. Horietan bikain neurzen dira ikaslearen zalantzak nahiz errepikapenak edo autozuzenketak.

#### **4.1.3. Eragindako produkzioa**

Batzuetan astirik ezagatik edo lagin berezia lortu nahia dugulako, geu gara hizketa sortarazten dugunak: perpausak osatu, roleplaying-en tankerako jokoak egin; hitzak definitu; sinonimoak eta antonimoak eman...

### **4.2. Pragmatikaren ekarria ebaluaketarako**

Ebaluazioa hizkuntzaren aspektu estrukturaletan edo formaletan bakarrik zentratzeak, ez digu azaltzen ez haren jabeakuntza, ezta ikasle askok erakusten diguten komunikazio porrota edo akatsak ere. Hizketaren garapenak ez du eskatzen gaitasun gramatikala edo linguistikoa soilik, hots, arau gramatikalak ezagutzea eta gauzatzea, ezpada, horrez gain, *gaitasun pragmatikoa* ere eskatzen du, alegia, beharrezko trebetasunen jabe izatea solaskide eta inguru desberdinetan hizketa egokia sortzeko.

Irakasleok, askotan, jokabide estrukturalistak edo joera formalekoak jaso izan ditugulako, eta bestetik, arau gramatikalak neurtzea bideragarriago delako, ez dugu ebaluatu behar bezala gaitasun pragmatikoa.

### **4.3. Ebaluaketarako prozedurak**

#### **4.3.1. Proba estandarizatuak**

Hizketaren dimentsio pragmatikoa ebaluatzekeo ez da proba estandarizatu askorik. Dagoenaren artean aipagarria da Aginagarena eta kideena (1990) Prueba de Lenguaje oral de Navarra (PLON), 4 urterik 6rako haurrentzat atondua.

#### **4.3.2. *Portaeraren behaketa***

Pragmatika ebaluatzeko aukera ideala egoera naturaletako behaketa zuzena eta sistematikoa da: ikasleak gelan zein gelaz kanpo behatzea, komunikazio egoera benetakoa eta berezkoetan, horrela frogatu ahal izateko, ea testuinguru desberdinetan eta solaskide desberdinekin jarduteko gai diren. Jokabide honek zailtasun handi bezain neketsuak ekarri ohi ditu irakasleontzat.

Behaketa iraunkor horretan begiratu beharko genuke: ea txandak gordezten dituen; hizkuntzako alde formalean eta pragmatikoan koherentziaz jokatzen duen; adierazpenak zehatzak diren eta abar.

#### **4.3.3. *Estandarizatu gabeko probak***

Berezko egoera norberak sortarazietan egitekoak dira. Egoerotan, hezitzaileak hasierako markoa baino ez du ematen: gai posibleak, solaskideen kopurua, elkarrizketak, jokoak, role-playingak edo pertsonaiak antzestea sartzen dira eredu hauetan.

### **4.4. *Zuzenketarako irizpideak***

Hizketaren dimentsio pragmatikoa ebaluatzerakoan, ezin balia gaitzke tradizionalki erabili ohi diren irizpideekin, alegia, hizkuntzaren alde formala ebaluatzeoekin: zuzentasun gramatikala, adierazpen lexikoko aberastasuna eta abar, nahiz eta guk hauek ere ebaluaketan sartzen ditugun William Littlewood-i (1998) jarraituz.

Jokamolde honetan produkzioak ez dira behin honezkero ebaluatzen zuzen edo ez zuzen modura, baizik eta trukea gertatzen deneko testuinguruari edo solaskideari egokitzen zaion neurrian. Horrenbestez, ume batek hiztegi urria izan dezakeen arren edo esaldi akasdunak sor ditzakeen arren, jarduera funtzional egokiari euts diezaioke. Guztiarekin ere, guk abiapuntutik beretik baieztatu dugunez, zuzentasun gramatikala-eta eskatu egiten ditugu, ezen irakaste ortodoxiaz baino esperientziaren eraginez, jarduera sinkretikoetan aritu beharra izan dugu eta.

Horrek guzti horrek zaildu egiten du pragmatikaren ebaluatze egokia.

### **4.5. *Amaierako hausnarketa***

Joko zelai mugatuan bada ere, ikasleen portaera linguistikoa ebaluatzeko era kualitatiboa eskaini nahi izan dugu, hala teorikoki, nola praktikoki.

Berez, hizkuntza ebaluatzea ataza gaitza da, izan ere ez delako ikerketa gai sinplea. Hizkuntza modu ebolutiboan ulertzeak dakarrena da –hasieran aipatu bezala– jarrera eta funtzio anitzen arteko harremana, eta horren analisisa irakasgai oso desberdinei dagokie: linguistikari, psikologiari, pedagogiari... Hortaz, hizkuntzaren inguruko arazoak argitzeko diziplina arteko ikuspegia inposatzen da. Hizkuntzaren jabekuntza ikasleen beste arlo batzuetako garapenearekin batera doa. Horregatik dago behartuta irakaskuntzako profesionala arazoan hausnarketa globala egitera, eskema soilegietatik aldentuz.

Finean eta buruan, nola ebaluatu galdetu ohi dugunean, erantzun genezake hizkuntza probak egoera naturalean, askean jasotzea, transkribatzea eta aztertzea ordezka ezina dela. Jokabide honekin ezin hobeto araka daitezke funtzio komunikatiboak, elkarriketarako trebetasunak, egitura morfosintaktikoen ugaritasuna, intonazioa, eta hizkuntzaren aspektu prosodikoak, ugaritasun lexikoa eta esanahien arteko lotura.

## 5. AHOZKORAKO ESTRATEGIAK IKASGELAN

Ahazkorako metodologikoki banatu arren, ez da ahaztu behar eguneroko bizitzan mintzamina eta entzumena elkarren osagarri eta banatu ezinezko trebetasunak direna.

Guk azterketetan eskatu arren, oso egoera anormala da eguneroko bizitzan ikasle guztiek alde zuzenetik dakitena elkarri kontatzea. Berez, elkarrekin trukutzen dugu informazioa, bata besteari ez dakiguna kontatuz.

Guk azterketetan eskatuko duguna erdi-ahozkoa izango da, hots, ereduztat testuliburuko testu idatzia hartuko da ahazkorako eta ondo dakigu berba egitea idatziz mintzatzea ez dena. Hala ere, denboraren presiopean mintzatu da, hori beti da ahazkoaren berezitasunik nagusia eta.

Brumfit-en iritziz, behe mailatan zehaztasunak du lehentasuna –hizkuntzari buruz diogu–, baina zehaztasunari zor zaion arreta gutxituz joango litzateke ikasmaila gora doan neurrian, eta goi mailatan jarriotasunari legokioke lehentasuna. **Jarriotasuna** hizkuntzaren berezko erabilerari loturik doa: formari baino gehiago komunikatu gura denari, edukiari begiratzen baitzaio. **Zehaztasuna**, berriz, hizkuntza zuzentasunari eta zehaztasun gramatikalari dagokie: edukia ez, baina forma azpimarratzen da.

Zerbait beti zuzendu behar genioke ikasleari –elementu bat edo bi, ez asko– ezen ongi baitakigu gehiegizko zuzenketak esanahietatik formetara aldatzen duena ikaslearen interesa. Beti ere, egitekotan, amaieran egin beharko genituzke zuzenketa nagusiak.

Euskara erdua, euskara batua nahiz euskalkiko kolokiala nahiz literarioa izan daiteke.

## 5.1. Ikasitako gaia azaltzea

5.1.1. Gaia azaldu klasekoen aurrean. Arteko egunekoa bada, saioaren hasieran; klase egun horretan landua bada, irakasleak azaldu bezain laster.

Kalifikatu egingo du irakasleak, kontuan harturik: ikasgela guztian oso ondo entzun behar dela; mezua ulergarria den ala ez; hizkuntza zuzen darabilen; gai horretako edukiak badakizkien.

Pare bat ikaslek eta irakasleak akatsen bat edo beste apuntatuko dute, ahal dela esaldi osoaren barruan hartuta. Dena dela ikasleak azalpena amai dezan arte ez zaio zuzenketarik egingo.

Azalpenaren iraupena ere ikasleren batek kontrola dezake.

Azalpenaren iraupena hiruren bat minututakoa izatea komeni da.

Kurtsoan behin, behintzat, ikaslearen azalpena magnetofon edo bideoan grabatzea komeni da.

5.1.2. Irakaslearen ondoan banan banako azalpena egitea. Bigarren hau aurrekoaren aldaera besterik ez da.

Euskara eredia liburuan datorrena izatea da errazena, hau da, testuliburuan euskara batuan datorrena euskara batuan azaltzea, euskalkian baletor, atxikitze-eredukoek –etxetik euskaldun datozenek– euskalkian egitea.

## 5.2. Monografiak

Gaia irakasleak emango du.

Azalpen unean, ikasleak gidoia edukiko du eskuan edo retroproiektora erabiliko du.

Hitz tekniko batzuk edo esaldi motaren bat eman ikasleari, azalpenean zehar tarteka ditzan. Esate baterako: *arren; nahiz eta*; edo matematikan badabil-tza asignaturako termino jakin batzuk, hiztegi teknikoaz baliatzen ikas dezan.

Lauzpabost minutuko iraupena eskatu behar zaio ikasleari.

Kalifikatu egingo du irakasleak, kontuan harturik: ikasgela guztian oso ondo entzun behar dela; mezua ulergarria den; hizkuntza zuzen darabilen; gaia ondo dakien.

Denbora kontrolatzeko ikasleren bat izendatzea da egokiena.

Hitzaldia egin baino astebete lehenago, berbaldiaren idatzizko zirriborroa irakasleari eskura ematea komeni da, oker idatziak oraindik zuzendu barik di-rela buruz ikas ez ditzan.

Ohartarazi klaseko guztiak, amaieran monografia egiten duenak galderak zuzenduko dizkietela berak azaldutako gaiari buruz.

Ikasle pare batek apuntatuko ditu monografiagileak egin dituen akatsak.

Ikastordu bakoitzean pare bat monografia azaltzea da egokiena, klaseko guztien berbaldiak entzuteko hiruhilekoa beharko baita.

Euskara moldea izan daiteke etxekoa –hitzak osorik esanda–, edo eskolako, hots, formalagoa.

### **5.3. Ariketen berbalizazioa**

Arbelean dihardutenean edo ekintzaren bat gauzatzen ari direnean, une horretan bertan egiten dutena hitzez esanarazi, berbalizatzeko eskatu, dela formulazioa, dela entziklopediako kontsulta, dela beste edozein ekintza.

Jokabide bera erabiltzea komeni da norbait berandu heltzen denean, Euskal Herrian gertaera nabarmenen bat ezagutu denean nahiz zer edo zer galdu zaionean ikasleren bati, alegia, berbaz esan eragitea.

### **5.4. Ahozko azterketak**

5.4.1. Ikastetxeko curriculumean sar dadin onartzen badugu, ezinbestekoa da kurtso osoan asignaturako gai bat, behintzat, ahoz galdetu eta kalifikatzea. Ikasle zuhurrek ezin hobeto dakite azterketetan sartzen ez den gaia –ahozkotasuna– ez dena garrantzitsua.

Zenbait ikaslek azterketako gaiari dagozkion zati batzuk buruz ikasirik ahoz esatea onargarria da, beti ere, positiboena izan arren, gaia jakinik norbere hitzez adierazten jakitea, ezagupen kognitiboen jabetzeaz baieztatua gogotan harturik.

Ikaslearen azalpenaren bukaeran, irakasleak galderak egin ditzake, ea zenbateraino menperatzen duen frogatzeko.

Egia esan, azalpenerako trebetasuna baino edukia ondo jakitea baloratu-ko da jarduera honetan.

5.4.2. Arteko azterketa motaren aldaera da ikasleak banan banan irakaslearen mahaitik pasatuz ikasgaia azaltzea, bitarte horretan gainerako ikaskideak ariketa muturen bati erantzuten edukirik

**5.5. Neurketarako eredu bat****HIZKETAREN EBALUAKETA**

	<b>Ondo</b>	<b>Txarto</b>
<b>Zuzentasuna</b>		
Deklinabidea: ergatiboa		
Aditza: aspektua baldintza		
<b>Perpausak</b>		
Ordena		
Zehar galderak		2
<b>Jatortasuna</b>		
Erdararen morrontza		
Euskalkiaren oihartzuna		
Esamoldeak		2
<b>Komunikagaitasuna</b>		
Komunikatzea lortu du		
Perpaua ulertezinak		2
<b>Jariakortasuna</b>		
Isilune oso luzeak		
Autozuzenketa		
Zalantzak		2
<b>Aberastasuna</b>		
Makila hitzen erabilera		
Sinonimoez baliatzea		
Elementu deitikoak		1
<b>Ahoskera</b>		
Artikulazioa		
Intonazioa		1
		<b>10</b>

## 6. AINTZAT HARTZEKOAK

Irakaslearen zeregin minimoetan sartzen dela onartzen dugu, ikaslea irakasleari euskaraz zuzen dakion eskatzea, baita euskararen erabilera positiboki baloratzea ere.

Ikasgelan eztabaida bizia bada, espontaneitateari leku egin behar zaio eta ez da egokia erdaraz zerbait esan duen oro zuzentzen aritzea.

Ingeleseko klaseetan ingelesa baino ez da erabili behar, eta gaztelarako-  
etan gaztelera baino ez?

Berbalizazio sistema osoak eskatzen duena da, irakaste sistema magistratetik parte hartzaileko urrats guztiak ematea.

## 7. GEHIGARRIAK

### 7.1. Ahozkoa ikasgelan. 2003/2004 ko ikasturtea. Klaustorako proposamenak (1)

*7.1.1. Jarraipeneko taldea:* 2003-2004ko ikasturtean egingo diren esperimentzietarako laguntza eta koordinazioa eskainiko duen taldea. Hiru edo lau irakasle behar dira.

*7.1.2. Programazio laburrean* –2003-2004koan–:

*7.1.3. Atal bat gehitu* ahozkoa programatu ahal izateko, hala edukietan, prozeduretan, jarreretan zein baliabideetan edo ebaluazio sisteman nahiz berreskurapenean.

*7.1.4. Gai bat ahoz itaunduta kalifikatu:* Irakasle bakoitzak zein gai edo zeintzuk ikastunitateak galdetuko –eta kalifikatuko– dituen ahoz izendatuko luke. Horretarako, programazio laburrean idatziko luke.

*7.1.5. Estrategia bana aukeratu:* Irakasle bakoitzak –edo mintegika– estrategia bat aukeratu eta landu. (Ereduak «Ahozko estrategiak ikasgelan» izeneko orrian banatu gintuen). Jakina da berriak ere sor daitezkeena.

---

(1) Gogoan hartzen ditut *Txorierr*i Institutuko lankideak: Ana Hurtado, Jose Luis Egiluz, Ane Azpiri eta Euskarako Mintegikoak: Agus Ibarluzea, Karmen Zelaia eta Lurdes Amigo. Proba hauek taldean sortuak dira.



## **7.2. Ahozkoa: 2003-2004ko ikasturtean. 2004-04-01**

### **7.2.1. Helburua**

Ahoz komunikatzeko trebetasuna lantzea. Badakigu erabili ezean ez dela ikasten. Ahozkotasunean trebatzea hizkuntza guztietako zeregina da, baina euskararen egoeran normalkuntzarako neurria ere bada.

### **7.2.2. Egoera**

Orain arteko irakaskuntzan, euskarari dagokionean, irakasleriaren helburua hizkuntza atxikimendua, sentimendu mailakoa, borondateari begirakoa indartu izan da. Ondorioz, hainbeste ikasle dira gure artean, euskaldun sentitu arren, euskaraz eroso jardun ezin dutenak, euskaldun izateaz harro sentitu arren, erdararen itsasoan bizi direnak.

### **7.2.3. Ikasle motak**

Txorierrri Institutuan ikasle mota bi bereiz ditzakegu:

7.2.3.1. Murgiltze-eredukoak: etxean euskararik jaso ez dutenak. Hauek eskolatik herren ateratzen dira.

7.2.3.2. Atxikitze-eredukoak: Etxeko euskara bera ez da nahiko edonora joateko.

7.2.4.1. Orain arte egin dena:

Mintzapraktika baino gehiago izan da jendearen aurrean berba egiten irakastea, eta ikasgaiak idatziz baino ahoz azaltzea.

7.2.4.2. Lehen ebaluaketan: Froga bi egin ditugu:

Lehenengoan, 9. gaia azaldu dute banan bana, gutxi batzuek klasearen aurrean, gehienak magnetofonia eskuan dela irakasleari.

Bigarreanean, eguneroko jarduna, eguneroko gai atala itaundu da hurrengo egunean.

Hirugarrenean, gutxi batzuek gai monografikoa atondu eta ikasgelakoan aurrean azaldu dute.

7.4.3. 2. ebaluaketan: 12. gaia azaldu dute, baina oraingoan ez bakoitzak gai osoa, ezpada atal bana, beti ere testuliburuan datorrena internetetik edo hornituz.

Egindakoaren ebaluazioa:

Gutxi batzuek bikain ezen, eskema eskuan dela jardunik mintzatu baitira:

- Jendeari begiratzuz, begiak jasota egin dute berba.
- Euren hitzak erabiliz
- Diskurtsoa kontrolaturik.

Gehienek:

- Papereko eskemaren menpe
- Jendeari begiratu barik
- Buruz errepikaturik testuliburukoa.

Orokorrean lortzen dena:

- Ahoz egiten dituzten akatsik arruntenak detektatzea
- Jendearen aurrean hitz egiten ikastea
- Euskalkia nahiz euskara batua gelan entzutea.
- Programazioko erritmoa ez galtzea ahozkoarekin.

## 7.5. Konpondu gabe daukaguna

- Mailaka antolatzea ahozkoa, hau da, programatzea DBHn hasi eta batxilerrerainoko ahoz eskatzen dena. Esate baterako: 1. DBHn antzerkia; 3. DBHn monografiak; batxilerrean, testuliburuetakako edukiak ahoz azaltzea.
- Ahozkotasanaren berezitasunak aintzat hartzen irakastea. Adibidez: denboraren presiotik askatzeko sortzen ditugun makuluak: *zera, ba, lehen esan dudan legez...*
- Zutik egoten irakatsi eta eskuak-eta erabiltzen.
- Irakasleek azalpenaren amaieran akatsik larrienak argitu ikasleari.

*Kritika sozialak egiten (zuten) zituzten.*

*Autore (hau) honek idatzi zuen eleberri hori.*

## BIBLIOGRAFIA

ACOSTA, M. ACOSTA ETA BESTE. (1996): Aljibe. Málaga.

ALZUETA, KARMELE ETA BESTE. (1981): *Hasiera zikloko euskararen programakuntza*, Eusko Jaurlaritza, Vitoria/Gasteiz.

- AUSUBEL, P. DAVID ETA BESTE. (1993): *Psicología educativa*, Trillas. Mexico.
- BARNES, D. (1975): *From Communication to Curriculum*, London, Penguin.
- CASSANY, DANIEL. (1991): *Describir el escribir*, Paidós, Barcelona.
- CLEGG, JOHN: *The National Literacy Strategy*, in IX. Jardunaldi Pedagogikoa, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Donostia.
- GAMINDE, IÑAKI ETA BESTE. (2004): *Bizkaian zehar kantetan*, Eusko Jaurlaritzza, Vitoria/Gasteiz.
- GOIKOETXEA, JUAN LUIS. (2003): *Euskalkia eta Hezkuntza*, Bilbo, Euskaltzaindia, Iker-13.
- KRASHEN, S. D. (1981): *Second Language Acquisition and Second Language Learning*, Oxford: Pergamon.
- LITTLEWOOD, WILLIAM. (1981): *Communicative Language Teaching*, Cambridge University Press, Espainolezko argitalpena (1998).
- MENDEBALDE KULTURA ALKARTEA. (2003): *Ahozkotasuna aztergai*, 7, Bilbo.
- TOUGH, J. (1997): *The development of meaning: A study of children's use of language*, New York, Routledge.
- VAN PASSEL, FRANS. (1973): *Linguistique et enseignement des langues étrangères*, Paris, Nathan.
- VILLASANTE, LUIS. (1988): *Euskararen auziaz*, Arantzazu, Colección Eleizalde, 9.
- WEINREICH, U. (1979): *Languages in contact*, The Hague, Houton Publishers.
- ZUBIMENDI, JOSE RAMON. (1995): *Jokaera-liburua*, Sendoa, Oiartzun.

# BAZTAN-BIDASOAKO HIZKEREN EKARPENA (Dialektologiatik ikasgelara)

*Edu Zelaieta\**

## 1. SARRERA\*\*

Ba ote dakigu egiatan zer den euskara batua? Noiz-nola erabili behar dugun? Euskaldun askok maiz aski erabiltzen duten *Harluxet* Entziklopediak, adibidez, honako hau dio euskara batuaz:

*Euskaltzaindiak proposatutako euskara-eredu bateratua da.*

Definizioa hagitx ulergarria da, bai, baina zer proposatzen du zehazki Euskaltzaindiak? Filologoa ez den euskaldunak ba ote daki zehatz-mehatz zer den euskara batua? Hizkuntzaren maila guztietan modu berean proposatzen ote duen: fonetika-fonologian, izenaren morfologian, aditzaren morfologian, sintaxian eta lexikoan? Edota, noiz bukatuko den bateratze prozesua, bukatu egin ez bada? Aise erantzuten ez diren galdera interesgarri hauekin hasiera eman nahi izan diogu gaurko hitzaldiari.

Euskara batuaren jaiotza, Euskaltzaindiak Arantzazun 1968an antolatu zuten bilkura haietan datatu ohi da. Euskara batzeko prozesuaren oinarriak eta ardatzak orduan ezarri ziren. Jakina denez, euskara batua finkatzeko, aditzaren morfologia arautu izan da gehienik. Halaber, euskara idatzia izan da batez ere bateratzeko prozesuan jarri dena, ahozko euskaraz eztabaida franko (egin gabe) daudela. Beraz, euskara batua erraten dugularik, arestikoak kontuan hartu behar ditugu; neurri handi batean, batuaren etiketapean ez baita ahozkoa sartzen, eta sintaxiaren nahiz lexikoaren arloetan, zinez, malgutasun handia baitago (jende anitzek uste baino malgutasun handiagoa).

«Euskara batua eta euskalkiak» edo «euskalkiak eta euskara batua» delako eztabaidari interesgarria deritzogu hagitx. Denok ados gaude euskarak dituen dialekto eta hizkeretan iturri ezin aberatsagoa daukala. Kontua da nola

---

\* Euskal filologian doktoregaia. Iruñeko *Jaso* ikastolako irakaslea DBHn.

\*\* Iñaki Camino irakasleari artikulu honi ohar aberasgarriak egin izana eskertu nahi diogu.

kudeatu hizkuntza aberastasun hori; eskualde bakoitzetik zer hartu batuan sartzeko. Hitz batez, zer bataiatzen ahal da euskara estandartzat, eta zer ez.

Euskalkien forma guzti-guztiak ezin dira maila berean jarri. Forma batzuei lehentasuna eman zaie, hedatuak, emankorrek eta ulerterrazak diren heinean. Baina hau ez da beti horrela gertatu. Adibidez, *gernu-debeku* «prostataren eritasuna» ez da hiztegi gehienetan ageri. Baztan-Bidasoan eta eremu handiagoan erabiltzen dela badakigu, (Mariano Izetak ere badakar bere *Baztango Hiztegia*), beraz, bizirik dago, emankorra da eta gainera ez du iduri gainerako euskaldunentzat sobera zaila denik. Zerengatik ez sartu erabilera orokorrerako?

### **Artikuluaren hezurdura eta helburuak**

Gure proposamenak azaltzeko, Nafarroako hizkerez, eta batez ere, Baztan-Bidasoako hizkerez baliatuko gara saio honetan. Lehenik eta behin, Baztan-Bidasoako mintzoez berri emanen dugu, gaingiroki baldin bada ere. Dialektologiatik abiatuko da ikasgelan bukatu nahi duen lantxo hau. Baztan, Bertizarana, Malerreka nahiz Bortzerrietako ikasgela batean. Edo, zergatik ez, Iruñeko ikasgela batean, geroxeago ikusiko dugunez. Lehen hezkuntza aipatuko badugu ere, bigarren hezkuntza (12-18) izan dugu gogoan hitzaldia ematean eta artikulua idaztean. Hezkuntzaz ari garelarik, eta, ikasgela barrenean zenbait erabaki hartu beharra dela eta, gure ikuspegi teorikoa emanen dugu, hezkuntza eta dialektologia uztartuta. Trudgill dialektologialari ezaguna, errate baterako, ikaslearen jatorrizko dialektoa onartzearen aldekoa da (1983). Alde horretatik, zenbait proposamen praktiko aipatuko ditugu: Nafarroako Baztan-Bidasoan mintzatzen diren euskal hizkerak kontuan harturik, euskara baturako zein ekarpen egoki egiten ahal diren azaltzera saiatuko gara. Zehazkiago errateko, euskara estandarrari Baztan-Bidasoatik begiratuko diogu bera aberasteko. Izan ere, euskara batuaren prozesua ez da guztiz akitu; eta, beraz, oraindik zenbait ekarpen egin ahal/behar dira. Gure helburua, alde horretatik, dialektologiatik abiatuz betiere, euskara batua aberastea izanen da. Ikasgelan eta kanpoan. Horretarako, aurtengo jardunaldien leloak dioen bezalaxe eta ahozko euskarari loturik: dakiguna eta darabilguna bi kontu ezberdin direla salatu gogo dugu (cf. Goikoetxea 2003).

## **2. DIALEKTOLOGIATIK: BAZTAN-BIDASOAREN KASUA**

Autza (1305m) mendiaren mazelan, *Xorroxin* izeneko alderdian sortzen da Baztan ibaia, Erratzun, Izpegi inguruan. Izen horrekin ezagutzen zaio Bertizaranara iritsi bitartean, Oiiregin berean Bidasoa izena hartzen baitu; bai eta izen horrekin jarraitu Txingudiko Badian hiltzen den arte ere. Guztira 69 ki-

lometroko bidea du; hauetako 59 Nafarroan eta 10 Gipuzkoaren eta Lapurdiren artean.

Hain zuzen ere, ibai honek Nafarroan ureztatzen dituen bazterretan barrera murgildu gara hondarreko sei urteotan, bertako hizkerak nondik norako mugak dituzten erakusteko asmoz. Alabaina, hizkuntzari ekin aitzinetik, bertzelako esparru batzuei ere erreparatu behar izan diegu. Izan ere, dialektologian ezaguna denez, anitz dira eremu bateko mintzoan eragiten duten faktoreak: demografia, orografia-hidrografia-geografia, harreman sozio-ekonomikoak eta egoera soziolinguistikoa, bertzeak bertze. Horiek guztiak sakon ezagutu behar dira, delako eremuko hizkerarekin zer gertatu den jakinen badugu. Erran nahi baita, solasa aztertzeko, solas hori egiten duen jendea ere azertu behar delako, bai eta jende multzo hori biltzen duen eremua ere. Azken batean, mintzoaz haratago, mintzo hori duen jendeaz ari gara.

Hona hemen, Baztan-Bidasoa ibaiaren kokapena Euskal Herriko mapa fisiko batean:



Baztan-Bidasoa ibaia

Ekar dezagun bertze mapa bat ikusi ahal izateko zein diren Baztan-Bidasoa eskualdea inguratzen duten herriak eta ibarrak; hots, Baztan-Bidasoako euskaldunek (izan) dituzten ondoko lagunak nor diren jakiteko nola orain arte norekin eduki dituzten harremanik oparoenak jabetzeko:



Baztan-Bidasoa inguratzen duten herriak eta ibarrak

### **Baztan-Bidasoa: bi izen, bi izan**

Baztan-Bidasoaren kokapenaren berri eman eta ondoan, arestiko mapen bitartez, lan honetarako egoki diren zenbait ezaugarri aipatuko ditugu. Lehen-lehenik, izen bikoiztasunaz ohartarazi nahi dugu: Baztan-Bidasoa. Izenak izana salatzen du, nonbait. Eskualdeak bi izen eta bi izan ditu, alegia: Baztan ugaldea *vs.* Bidasoa erreka.

Berriki egin dugun doktorego-tesian (Zelaieta 2005) erakutsi denez, bi ur korrante ezberdin daramatza Baztan-Bidasoa ibaiak. Alde batetik, Baztan aldean aditzen den solasa, eta bertze aldetik, berriz, Bidasoa alderdikoa (Bertizarana, Malerreka, Sunbilla eta Bortzerriak). Hizkeren sailkapenari dagokionez, bi multzo bereizten ditugu, hortaz; nahiz eta bi hizkera hauek euskalki beraren barranean dauden, egungo euskara nafarraren barranean, hain zuzen. Honenbertzez, gure datuen arabera betiere, Nafarroa Garaiko euskararen bi hizkera mota ditugu Baztangoa eta Bidasoaldekoa.

Gure oraingo artikulu honetarako hizkuntza berdintasunak hartuko ditugu hizpide, hau da, Baztan-Bidasoa eskualde osoan dauden hizkuntza ezauga-

rriak lehenetsiko ditugu, lan honen bukaera aldean zenbait proposamen zehatz egiteko. Alderdi horretatik, Baztan eta Nafarroako Bidasoaldea elkartzen dituzten ezaugarriok maiz eremu zabalagoak ere besarkatzen dituztela ohartarazi beharra dugu, Nafarroa Garaiko bertze eskualde batzuetan nahiz Ipar Euskal Herrian ezagunak direlarik. Era horretantxe frogatu nahi da Baztan-Bidasoan erabiltzen diren zenbait hizkuntza tasun eremu zabalagoetan ere erabiltzen direla. Hots, ez gaudela lokalismo antzuetan, baizik eta geografia hedadura handi samarra hartzen duten ezaugarrien aitzinean.

### **Oronoz-Mugairi, muga-hiri**

Aspaldi samarretik, Bonaparte printzearen garaitik, Oronoz Baztandik aparte agertu izan da zenbait dialektologia sailkapenetan. Nonbait, bertatik pasatu diren euskalari nagusiak ohartuak ziren Oronoz Baztango euskaratik at utzi behar zela, eta Bidasoaldeko hizkerek batean sartu beharra zela. Geuri ere gertatu izan zaigu, hondarreko urteotan galdeka ibili garelarik, Oronozkoak ez direla baztandarrak, *errekarrak* baizik aditu izana. Halarik ere, gainerako baztandarrek zirikan erraten dutela/dietela argitu beharra da. Honekin ez dugu Oronozen –Baztan guztian bezalaxe– sendo erroturik dagoen baztandar sena ukatu nahi. Alde horretatik ez baitago zalantzarik: Oronoz-Mugairi Baztango herria da, eta Baztan harana hamabortz herriek egiten dute. Edo hobeki erran, gure dialektologia eginbeharra dela eta, Baztango muga-hiria dugu.

Oronoztarrak berak aise ohartzen dira solasa ezberdin samarra dutela, baztandarrak izanda ere. Ildo honetatik gogoratu nahi ditugu Oronozek Bertizaranako hiru herriein (izan) dituen harreman historikoak. Eta horrek ekarri duen ondorio linguistikoa: Oronoz-Mugairi Baztango gainerako herrietatik aparte samar gelditu izana. Adibidez, Oronoz Baztango artzapez-barrutitik kanpo egon da, Bertizaranarekin, Malerrekarekin, Basaburu Tikiarekin, Sunbillarekin eta Bortzerriekin batean, Doneztebeko artzapez-barrutiaren baitan. Zinez, hagitz adierazgarria da, kontuan hartzen badugu, elizak duela guti arte izan duen garrantzia berebizikoa izan dela.

Hizkuntzaren azterketari gagozkiolarik, Bidasoan goiti heldu dena, Bortzerriak-Malerreka aldetik, Oieregin eta batez ere Oronozen hasten da aldatzen. Nafarroako Bidasoaldek heldu den indar hori herri honetan apaltzen da. Ezaugarri anitzek Oronozen hartzen dute hondar hatsa. Hizkuntza trantsizioa, beraz, Oieregin hasi eta Oronoz-Mugairin mamitzen da, nahiz eta Bidasoaldeko ezaugarri batzuk Baztango Basaburura iristen diren (ez, ordea, Baztango gainerako tokietara). Oronozko solasa muga-mugakoa da (cf. Pagola 1992, Irizar 1992), eta arestikoaren seinale garbiena Oronoz-Mugairiko euskaran dagoen polimorfismo maila handia da. Hona hemen erraten ari garenaren adibide batzuk:



- Oronoz-Mugairiko hitzun batzuek automatikoki bustitzen dute (Bidasoaldean bezala), baina bertze batzuek bakan bustitzen dute (Baztango eredura hurbilduz): *itten & iten, ttu & tu* «ditu», *aita & atta...*
- N-N-N sailen arteko lehia bizia dago, batzuek *didazu* erako adizkiak baliatzen dituzte (Bidasoaldean bezala), baina bertze batzuek, berriz, *datazu* erakoak baliatzen dituzte (Baztanen bezala).
- Lexikoan ere ohikoa da bitasuna (ezkerrekoa Bidasoaldekoa da, eta eskuinekoa, aldiz, Baztangoa): *aspo & ausko* «hauspo», *ate & piro* «ahate», *bezpera & mezpera, ernatu & iretzarri, ideki & edeki* «ireki», *soñu & asots* «soinu, zarata».

Ornoz-Mugairiko hizkuntza aldakortasuna ez dago hitzun bakoitzaren baitan, baizik eta Oronoz-Mugairi osatzen duten euskaldunen artean. Bi joera nagusiak ageri dira, mendebaletikoa eta ekialdetikoa; baita doinuan ere. Lehia hau ekialdetikoa *irabazten* ari dela iduri du. Oronoz-Mugairiko euskararen norabidea argi dago, beraz: Baztan aldera ari da. Kasu bakanetako bat izanen da alde horretatik, baina hizkera gehienak Euskal Herriko erdigunera hurbiltzen ari diren honetan, Oronoz-Mugairikoa Baztan aldera ari da (cf. Zuazo 2003: 110). Bidena-barrekoan, Oieretik ere aldaketa giro horretatik hartu du, neurri aise apalagoan.

### Alderdi bakoitzeko ñabardurak

Goraxeago erakutsi da Oronoz-Mugairik Bidasoaldea eta Baztan banatzen dituela. Zernahi ere den, dialektologiaren atal llabur hau akitu baino lehen, Baztango nahiz Bidasoaldeko hizkeren baitan ere badirela ezberdintasunak eta ñabardurak adierazi gogo dugu. Geolinguistika azterketetan ohi denez, multzo bakoitzaren baitan hedadura ezberdina hartzen duen ezaugarri batzuk ageri dira. Bidasoaldeko euskaraz den bezainbatean, Bortzerriak eta Malerreka ez datoz beti bat. Zenbaitetan, Bortzerriek ondoko Lapurdirekin nahiz Gipuzkoarekin bat egiten dute, eta Malerrekek, berriz, ondoko hizkera nafarrekin bat egiten du usuago. Halaber, Baztanen, Baztangoiza Ipar Euskal Herritik nahiz Urdazubi-Zugarramurditik hurbilago dago, eta Baztango Basaburua, ordea, Oronoztik nahiz Ultzamatik hurbilago dago. Geografia hurbiltasunok badute beren ordain linguistikoa: Baztangoizan aurkitu ditugun zenbait ezaugarri ez ditugu Baztango gainerako herrietan atzeman, eta bai, ordea, Baztangoizarekin muga egiten duten Zugarramurdi-Urdazubin nahiz herri lapurtarretan eta baxenafarretan. Hizkuntza ñabardura hauek mendeetako giza harremanen ondorio dira: Bortzerrietako herriek –Berak eta Etxalarrek, bereziki– eta Baztangoizakoek –Azpilkuetak, Amaiurrek, Arizkunek eta Erratzuk– muga inguruko herri lapurtar nahiz baxenafarrekin hartu-eman sakonagoak eduki izan dituzte gainerako herriek baino. Honekin erran nahi duguna da Ipar Euskal Herrian, Etxalarren eta Erratzun badirela zenbait ezaugarri, Donezteben, Urro-

tzen, Narbarten edo Arraiozen ez daudenak. Adibidez, Etxalarren eta Erratzun *-rat*, *-ganat*, *-t(z)erat* adlatiboak aukeran daude, eta bertze herrietan *-ra* da atzizki emankor bakarra (1).

Gaude, arestiko dialektologia ñabardura edo ezberdintasun hauek Baztan-Bidasoako hizkerak dialektologikoki aztertu izanak ekarri dituela. Beraz, eremu bateko hizkerak aztertu ahala, direlako ñabardurak agerian gelditzen dira. Euskal Herriko errealitate dialektologikoa zenbat eta hobeki ezagutu, orduan eta ñabardura gehiago sumatuko ditugu euskararen herrian. Errealitate dialektala *-ez* bertzea ere, maiz *-ez* baita izaten, dialektologialariak nahiago izaten duena bezalakoa, baizik eta hainbat eta hainbat eragilek denboraren joanean marraztu duten bezalakoa.

### **Baztan-Bidasoako hizkerak euskara nafarraren baitan**

Ezberdintasunak ezberdintasun, ñabardurak ñabardura, Baztan-Bidasoako eskualdeko hizkerak egungo euskara nafarraren barrenean kokatu behar ditugu gure datuen arabera. Euskal Dialektologiak historian izan duen eztabaida klasiko bati helduz, Baztango euskara lapurtera edo nafarrera ote den, alegia, erantzuna emana dugu gure doktorego-tesian. Izan ere, Bonaparteren sasoiari, Baztan mugako hizkera izaten ahal baldin bazen ere, XXI. mendean, ordea, gauzak aldatuak dira, eta Baztango euskara aski nafartua sumatzen dugu. Garai batean, Baztanek Ipar Euskal Herriarekin zituen harremanak azkarragoak ziren, eta ondorioz, bertako euskarak nafar-lapurterarekin lotura gehiago ageri zituen. Alabaina, arestian erran bezala, Baztan Hego Euskal Herriko hizkeren dinamika berean edo bertsuan dago egun. Mugaren eragina gero eta nabariagoa da, nahiz eta aduana gehienak kenduak diren. Beharbada, aitzineko mendeetan kanpotik ezarritako muga egiazko muga bilakatu da denboraren poderioz. Eta orain, ongi barneratutako muga dugu, denen edo gehien gogoan dagoena: kultura erreferentzia anitz ezberdinak dira, ordutegi ezberdinak daude alde bakoitzean... eta ezberdin mintzatzen da. Hau guztia dela eta, Baztango euskara Nafarroa Garaiko euskararen baitan sailkatu beharra dakusagu (2).

Nafarroako Bidasoaldeko hizkerari dagokienez, berriz, zalantza gutiago dago, eta aspalditik Nafarroa Garaiko hizkeren artean sailkatu izan dira. Bortzerrietan, Malerrekian eta Bertizaranan erdialdeko euskararen oihartzun zenbait badaude ere, Baztanera apenas iritsi direnak, ezaugarri gehiago eta garrantzikoagoak dira Bidasoaldea Nafarroari lotzen diotenak. Honenbertzez, atalxo honen lehenbizian adierazi dugun gisan, Bidasoaldeko nola Baztango euskal hiz-

(1) Nahiz eta badakigun Baztan-Bidasoan osoan *norat* kasuaren hainbat forma fosilduta dauden, erakusleak nagusiki: *unat/onat*, *orrat*, *arat*.

(2) Nolanahi ere den, Baztango eta muga inguruko mintzo nafar-lapurtarrek gorde dituzte zenbait kidesun.

kerak Nafarroa Garaiko gainerako euskal hizkeren artean sailkatu behar ditugu, nahiz eta gure azter-eremuko multzo bakoitzak ezberdintasunak ageri dituen.

### 3. IKASGELAN, ZER-NOLA?

Baztan-Bidasoako hizkeren gaineko ikuspegi orokor bat eman eta ondolan, euskarazko ereduko ikasgeletara hurbilduko gara. Azken batean, sarreran aitortu bezala, hizkuntzatik abiatu gara hezkuntzara iristeko asmoz. Bertze era batera nahiago bada, ikasgela barreneko ahozko hizkuntzari buruzko erabakiak hartzeko, euskarak duen errealitate dialektalean oinarrituko gara. Dena den, ez beza inork pentsa tokian tokiko aldaerak euskara estandarra edo batua lekutu behar duenik, ez baita hori gure proposamena inondik ere. Bistan da eskolak eskaintzen duen hezkuntza formala dela. Hortaz, eskolako kodeek ere aski formalak behar dute izan, non eta ez garen ttikienen hezkuntzan ari, hau da, haur eta lehen hezkuntzako lehenbiziko urteetan (3). Zernahi ere den, eskolako kode mintzatua eta kode idatzia ez dira gauza bera. Eskolako idazmena eta mintzamena ez dira gauza bera. Edo, ez lukete izan beharko.

Euskarak Nafarroako Baztan-Bidasoan duen errealitate dialektalean oinarrituko gara bertako ikasgeletako euskara ñabardurez janzteko, ikasleen ahozko adierazpena aberasteko. Tokian tokiko ahozko tradizioa jasotzeko bildumak agertzen ari diren honetan (4), ikasleak etxetik dakarrenak nola eskolan ikasten duenak balio dute. Biak dira kultura, biak dira hezkuntza arlokoak, nahiz eta bakoitzak bere testuingurua duen. Hain zuzen, hortxe sartzen da irakaslearen lana: berebiziko garrantzia du, gure iduriko, ikasleak ezagun dituen bi mundu horiek noiz elkartzen ahal diren eta noiz berezi behar diren jakitea. Ikasleak bere ahozko euskara landu eta garatu beharko du mailakako prozesu baten baitan. Hasieran, beharbada, hizkuntza modalitateekin nahasiko da, eta baliteke zein aukera erabili behar duen sobera ongi ez jakitea. Baina denboraren poderioz, ikasgelan egindako lanaren poderioz, ikasleak ezagun dituen bi iturrietatik edanen du, zer-nola adierazi behar duen aise ikasiko duelarik.

### Euskara batua egunerokoan definitzen: teoriak haratagoko praktika

Dena den, ikaslearen ahozkotetasuna behar bezala garatzeko eta ñabardurez hornitzeko, ahozko euskarak eskaintzen dituen aukerez ohartarazi gogo

(3) Puntu honetan, batzuek euskalkiak ere erregistro formalak eta informalak lantzeko balio dezakeela aldarrikatzen dutela aipatu nahi dugu. Halaber, euskalkiek eta herri hizkerek idazteko modu arautua izan dezaten eginahaletan ari dira bertze zenbaitzuk.

(4) Ahozko kultura ez galtzeko dagoen nahiaren seinale garbia dugu, zorionez. Gure aztereremuari gagozkiolarik, adibidez, bi lan interesgarri argitaratu dira hondarreko urteotan: *Bortzietako ahozko tradizioa* eta *Malerreka solasean* (ikus bibliografian). Gisa berean, Baztanen eta Nafarroako bertze zenbait ibarretan ere horretan ari direla badakigu.

dugu; hain juxtu ere, euskara estandarrak berak ematen dituen aukerez. Izan ere, uste sendoa dugu euskara batuari dagokion baino eremu murriztagoa ematen zaiola frankotan (5). Bertzenaz, gure ustea ustela bada, zilegi bekigu gaurko mintzaldira etorri zaretenon artean galdera batzuk agertzea, gure arteko adostasun maila neurtzeko. Hitz batez, izen beraren gibelean gauza bera ote dugun denok buruan:

1. Zer da euskara batua ikasgelan/kanpoan?
2. Iruñeko euskara batuak eta Gasteizko euskara batuak berdin-berdinak izan behar dute? Ez da inolako moldatzerik onartzen?
3. Balmasedako, Legutioko, Berako eta Mauleko ikastoletan, euskara batua aipatzen delarik, gauza berbera ote da? Mauleko eta Legutioko irakasleek era berean mintzatu behar dute beren eskoletan?

Ez erantzun arestiko galde-moduei, ez baitira instantean ihardesteko galderak, gogoeta egitekoak baizik. Halarik ere, zuen baimenarekin, ariketa praktikoa bat egiten dugu. Minutu bat hartuko duzue mandatu erraz bat egiteko: nola erraten da euskara batuan erdarazko «hablar»/»parler»? Gogoan hartu euskara estandarraz ari garela.

(Hitzaldira etorritako 30-35 lagunek zintzo bete dute egitekoa. Gehienak lehen eta bigarren hezkuntzako irakasleak dira, Nafarroako zenbait ikastetxetan ari direnak. Badaezpada ere, ariketatxo hau egiteko oztoporik ba ote duten galdetu diegu; baliteke-eta bati baino gehiagori egoera bortitza suertatzea. Arazo kozkorrik ez dagoela eta, aitzinera segitzeko bidea eman digute)

Minutua pasatu ondotik, galdeka hasi gara banan-banan. Laburbilduta, hiru erantzun mota jaso ditugu aretoan:

- a) «hitz egin».
- b) «solas egin», «hitz egin», «mintzatu», «berba egin»...
- c) normalean, ikasgelan «hitz egin» erabiltzen badute ere, ez dakite ziur nola den.

Bertzelako erantzunak-komentarioak ere jaso ditugu tartean. Erraterako, batuan «hitz egin» ala «hitzegin» idatzi behar ote den kezka adierazi dutena. Une nahasi samarrak izan dira. Gaurko ikasleak, eguneroko irakasleak, erantzun irmo baten esperoan daude. Filologiako aditu batek zalantzak noiz uxatuko zain daude. Aitzitik, bazterrak gehixeago nahasten segitzea erabaki dugu, eta agertu ez diren zenbait aukera aipatu ditugu ozenki: «ele egin», «elekatu», «solas(ta)tu»...

---

(5) Pello Salaburuk (1994) *euskara batu soziologikoa* eta *euskara batu formala* bereizten ditu. Euskara batu soziologikoa jende askoren ustean sartutako euskara batuaren eredu murrizta da; euskara batu formala, berriz, Euskaltzaindiak onartutako hizkuntzaren erabilera gutzia.

Horrela, irizpideak finkatu beharraz hasi gara solasean. Hizketan. Berbetan. Eleketan. Zer ote da euskara batua? –hasierako galderara itzuli gara– Zeren arabera erranen dugu aukera bat batua dela eta bertze bat ez? Zeren arabera jakinen du hezkuntzako profesionalak, irakasleak, zein aukera baliatu behar duen?

Euskaltzaindiak *Euskeran* argitaratutako hiztegi batuaren arabera, bi dira irizpide nagusiak (2000: 481):

- a) tradizio idatziko eta egungo erabilera; gaur egun, orain arte ez bezala, Hiztegi Batuari berme sendoarekin ekiteko moduan ezagutzen ditugu erabilera horiek *Orotariko Euskal Hiztegia*-ri eta *Eguno Euskararen Bilketan-lan Sistematikoa*-ri eskerrak.
- b) alde bateko eta besteko euskaldunak batzen gaituzten formak hobestea; maileru berrietan, esaterako, nazioarteko formen alde egin dugu, eta horrelakorik ez dagoen kasuetan, Iparraldeko eta Hegoaldekoentzat onargarri gertatzen direnei eman zaie lehentasuna. Forma bakarrera iristeko oinarririk edo indarrik ikusi ez denean, forma lehiakideak eskaini dira, kasuan kasuko argibideak emanez, beherago adieraziko den eran.

Hau da, tradizioa nahiz gaurko erabilera kontuan harturik, euskaldunak elkarrengandik aldentzen ez dituzten forma guztiak euskara batuari dagozkio, euskara batuan erabiltzeko egoki dira. Euskaltzaindiaren lana eskuartean dugularik, lehengo ariketari erantzuna eman nahirik, baturako proposatzen diren honako forma hauek aurkitu ditugu (alfabetikoki): «berba egin», «ele egin», «elekatu», «hitz egin», «mintzatu», «solas egin» eta «solastatu». Arestiko guztiak, beraz, euskara baturako egoki dira Euskaltzaindiaren iduriko. Honenbertez, bigarren erantzun mota eman dutenak zuzen zeuden, entzuleen heren bat, gutxi gorabehera.

Egia da goiko kasua lexikoari dagokion afera dela, eta lexikoan, maila jokatzeari ere badagoela. Halarik ere, aretoko erreferentzia kontuan hartuz gero, iduri du *honetaz sobera ez dakien* jende gehiago badagoela dakiena baino. Gainera, ez dugu ahantzi behar gure mintzaldira etorri direnak ez direla nolanhiko euskaldunak, baizik eta egunero hizkuntza tresnatzat erabiltzen duten profesionalak. Nafarroako lehen eta bigarren hezkuntzako irakasleak, hain zuzen. Eta mintzaldira etorri badira, euskararen gaineko kezka erakarritak (eta ziurrenik, zenbait soluzioren bila) etorri dira.

Zilegi bekigu, gaurko bigarren lizentzia, definizio ez-akademiko(egi)a ematea, baina, zernahi ere den, euskara batuaren izpirituarekin bat egiten duena eta denok ulertzeko modukoa: Euskaltzaindiak emandako/proposatutako oinarriko arauak betetzen dituzten euskara oro batua dira. Hori bistan da erraten ahalko du bakarren batek. Bai, bistan da; baina bistan egonagatik ere, zenbaitzuek, eta ez gutik, ez dute behar bezala ikusten. Adibide fresko-fresko bat emanen dugu izena salatu gabe: gaurko hitzaldia hasi baino lehentxeago, areto honetara sartu aitzinetik, adiskide batek *nafarreraz* egiteko komenien-

tziaz gaztigatu digu. Eta kontent joanen da hemendik, gaur, hemen, zuen aitzinean euskara estandarrean ari izanagatik ere, *nafarreraz* mintzatu garelakotan. Eta kontua ez da horrela.

Hitzaldi hau gure sorterrian eman izatera, Gasteizen eman izatera, argi dugu ez ginatekeela horrelaxe mintzatu zuen aitzinean. Gasteizen, Uhartan bezalaxe, euskara batuan eginen genuke, baina ez modu bere-berean. Lehena go galdetu dugu Iruñeko euskara batuak eta Gasteizko euskara batuak berdindin-berdinak izan behar ote duten. Orain, datorrela gure erantzuna: ez. Iruñean nahiz Gasteizen euskara batuan mintzatu gara, hitzaldia emateak halaxe eskatzen baitu. Nolanahi ere den, euskara batuak aukera bat baino gehiago eskaintzen du. Hortaz, batua ez dadila erabateko uniformitatearen baliokidea izan; baizik eta partida jokatzeko zelai komun bat, non denek arauak ezagutzen ditugun, nahiz eta bakoitzak jokatzeko modu ezberdinxeak ageri dituen.

Jarraian, azter ditzagun Euskal Herriko ohiko bi egoera: euskalkia bizirik dagoen ikasgela/herria eta euskalkiak bizirik ez dagoen ikasgela/herria.

### **Euskalkia bizirik dagoen ikasgelan**

Ezaguna denez, Baztan-Bidasoan euskalkia bizirik dugu. Nafarroako eskualde honetako herrietan, beraz, euskal komunikabideetako hizkera estandarrez gainera, herri hizkerak ere entzuten dira egunero. Gakoa da eskola bezalako toki formal batean zein toki utzi behar zaion etxeko mintzoari, edota tokirik utzi behar zaion etxeko euskarari. Alde horretatik, beraz, irakasleak go-goan hartu beharreko lehenbiziko kontua hauxe izanen da: nongo ikasgelatan ari gara eskola ematen? Era berean eginen ote dugu Iruñeko ikasgela batean nahiz Urrotzen?

Euskalkia bizirik dagoen neurrian, ikasleak etxetik dakarren ezagutza ere balia daitekeela pentsatzen dugu. Kontua da zein neurritan eta nola bideratu behar dugun ikaste prozesua. Ez du iduri etxeko hizkerak idatzirako eta mintzaturako berdin balio duenik. Ikasleak hortxe hasi behar du bere bi ezagutzei –etxekoari eta eskolakoari– ahalik eta etekin handiena ateratzen. Hori dela eta, lehen hezkuntzako ikaslea, idazten ikasi ahala, ahozkoa eta idatzizkoa bi kode ezberdin direla jabetuko da. Hasieran, ziurrenik, biak nahasiko ditu; batez ere, etxean entzun eta erraten dituenak paperean ere islatuko dituelako. Dena den, hau ez da arazoa bi kode hauen arteko bereizketa behar bezala ikasteko. Ahozkoa ez dela idatzizkoa eta idatzizkoa ez dela ahozkoa bereiztera lagunduko dio irakasleak ikasleari.

Edozein kasutan, etxeko ezagutzak ere balio dezake ikasgelan, bereziki, ahozko adierazpena lantzeko. Izan ere, mintzatzan den bezala ez duela idatzi behar ikasi eta gero, ikasleari maiz gertatzen zaio uste izatea idazten duen bezala solas egin beharra duela. Eta hori ere ez da horrela. Adibidez,

Berako haur batek idatzi badu ondoko hau (egiazko kasua da, bidenabar) *aitari mandiotte alta*; irakasleak adieraziko dio hori «aitari alta eman diote» idazten dela. Gisa berean, haur horrek urte batzuen buruan solas egiten badu ikasgelan irakurri dituen liburuek bezala, eta ondorioz-edo, halako zerbait erraten badu: *biar beste bat joango da*, irakasleak aukera paregabea izanen du bereizketaren bigarren alderdia oroitarazteko: *zuk ikusi nola erratten duzun erran nai duzuna, biño yakizu uskaraz itteko tenorin benpin, itxeko uskara duzula obena. Orduan, zerengatik ez erran beti bezala, biar bertze bat yuanean da*. Bi adibide xume dira, artikulua honetan proposatu nahi denaren erakusgarritako:

1. Modu jakin batean idaztean dela (ahoz ez bezala)
2. Bertze modu batean hitz egiten dela (idatziz ez bezala)

Gure iduriko, horrela, irakasleak noiz-zer erabili behar duen jakinen du: kode idatzia mintzatua baino arautuago dagoela ohartuko da batetik; eta bertetik, ahozko erregistroa ñabarduraz janzteko aukera izanen du, ahozkoa etxeko (eskualdeko) euskaratik hurbilago dagoen heinean. Batean nola bertzean, adierazpen egoki, zuzen eta aberatsa garatuko du. Gainera, ahozkotasanari dagokionez, bere inguruko (adineko) euskaldunekin komunikatzeko arazorik ez du izanen, etxeko/herriko euskararen ere mintzatuko baita. Era horretan, mendeetako ahozko tradizioa gordetzeaz landa, eskolak bere funtzio akademikoa beteko du.

### **Euskalkia bizirik ez dagoen ikasgelan**

«Euskalkia bizirik badago, irakasleak badu erreferente bat» baieztapena aski ezaguna da euskal hezkuntza arloko profesionalen artean. Baina bertako euskal hizkerak aspaldi itzali badira, nola jokatu behar da? Ez da aise afera. Zenbait ideia azalduko dugu, jakinik ere eztabaida hau oraindik egiteko dagoela.

Lehenik eta behin, bertako euskal hizkera bizirik ez badago ere, bertako euskal hizkerak gogoan hartzeko gomendioa egiten dugu guk. Hortaz, irakasleak nongo ikasgelatan ari den kontziente behar du izan berriz ere. Gasteizen eta Iruñean, tamalez, euskal herri hizkerak itzaliak dira. Hala eta guztiz ere, badira bertze zenbait erreferente lagungarri suerta litezkeenak. Dialektologia diakronikoa, errate baterako. Azken batean, euskara berreskuratzaren ari bagara, eta berreskalduntzearen definizio estu eta zehatzena hori da, zergatik ez berreskuratu tokian tokiko euskara, ahal den neurrian? Badakigu batzuetan arrunt zaila dela, ia ezinezkoa, baina ez beti. Zenbaitetan, baliabideak-eta izaten dira. Gainera, ez da ahantzi behar hizkuntza –edo dialektoa, kasuaren arabera– nortasanari gogor atxikia dela. Hau da, hizkuntzaren, hizkuntza motaren bidez, hiztunak nortasun kolektibo batez jabetzen

dira (6). Frankotan aipatu izan da euskara batuaren ahulguneetako bat, hain juxtu, nortasun eza izan dela. Bada, euskalkia bizirik ez badago ere, zergatik ez hornitu bertako euskal hizkeraren ezaugarri batzuekin? Horretarako, dialektologiaren ekarria garrantzizkoa izan daiteke: dialektologia diakronikoak bertako euskara nolakoa zen jakitera laguntzen ahal digu, eta dialektologia sinkronikoak, berriz, inguruan antzeko hizkera bizirik ote dagoen jakitera laguntzen ahal digu.

Bertze alde, Iruñeko lagunek maiz Nafarroako euskaldunekin harremanak izaten dituztela gogoan hartu beharra dugu. Iruñeko eta Iruñerriko lagunengandik hurbilen dauden euskaldunak gainerako nafar euskaldunak dira: Ultzamakoak, Imozkoak, Baztangoak, Bidasoaldekoak... Kontuan hartzeko argudioa da honako hau nafar euskaldunen artean mintzatzeko tenorean, beren arteko komunikazioak oztoporik izan ez dezan. Euskaraz egiteko trabarik egon ez dadin.

Honenbertzez, Baztan-Bidasoako euskarak Iruñerako balio digu? Gure iduriko, bai. Izan ere, lehenago erran baldin badugu Baztan-Bidasoako hizkerak egungo euskara nafarraren baitan daudela, pentsatzekoa da Baztan-Bidasoako hizkerek Iruñeko euskarak zituen zenbait ezaugarri badituztela. Gainera, errana dugu ezaugarriok ez direla eremu txikikoak eta zenbait eremu nafar euskaldunetan ere ohikoak direla. Adibidez, gure ikasle iruindarrek «esan» ziurtatua dute (telebista, irratiak, prentsa...); ez, ordea, «erran». Biak batua dira, eta bigarrena da Nafarroa gehienez erabiltzeaz gainera, Iruñean ere erabiltzen zena. Irakasleak «erran» baliatuta, onura baizik ez dugu ikusten:

- a) koherentzia geolinguistikoagatik
- b) ikasleak erabilera ziurtatuak bertako aldaerekin osatuko dituelako, bere hiztegia aberastuz.

Hona hemen zerrendaxka bat antzeko bertze batzuekin:

- *esan* (kanpotik ziurtatua) + *erran* (bertakoa)
- *asko* (kanpotik ziurtatua) + *a(u)nitx* (bertakoa)
- *oso* (hau dokumentatua ere bada) + *hagitz*, *arras*, *arrunt*
- *beste* + *bertze*
- *behintzat* (hau dokumentatua ere bada) + *behinik* *behin*, *bederen*
- *izango*, *egingo* + *izanen*, *egonen*
- *Atzera*, *aurrera* + *gibelera*, *aitziner*a

---

(6) «zeregin demarkatiboa» dio Iñaki Caminok (2005: 158) Séguy hizkuntzalariaren hitzak gogora ekartzearekin batean.



#### **4. ZENBAIT ONDORIO ETA PROPOSAMEN**

Beraz, zenbait azalpen emanda, ondoko galde-moduei erantzuteko tenorea heldu da:

##### **Irakasleak dialektologo bihurtu behar ditugu?**

Irakasleak ez du dialektologia sakon ezagutu beharrik, baizik eta tokian tokiko errealitate dialektala. Bertako ondare linguistikoa ezagututa, irakasleak ikasgelako ahozkotasuna bideratzeko aukera berriak izanen ditu, linguistikoki nahiz kulturalki (ahozko tradizioa, oro har).

##### **Irakasle guztiak gisa berean solas egin behar dute ikastetxean?**

Dialektologiaren ikuspegi idiliko samarretik baietz erran liteke, baina ez dirudi sobera errealista izan daitekeenik. Dena den, ikastetxeetan plangintzak eta proiektuak egiten diren modu berean, ahozkotasuna lantzeko tenorean, tokian tokiko hizkeren gaineko mintegiak, eztabaidak eta abar antolatzen ahal dira. Ikastetxeko irakasleek era koordinatu batean jokatzeko dute bertze zenbait arlotan, honetan, beraz, zergatik ez? Era koordinatu batean jokatzeko ez da irakasle guztiak berdin-berdin hitz egitea, baizik eta ikasleei kontrako mezurik ez helaraztea (hau erabili behar da irakasle honekin, hau, berriz, bertze honekin e.a.). Alde horretatik, irizpide nagusi batzuk ezartzeari komenigarria deritzogu.

##### **Eta, tokian tokiko euskara erabiltzen ez duten bitartekoak (testu-liburuak, ikus-entzunezkoak...) bota behar ditugu?**

Ikasteko-irakasteko gai gehienak eredu estandarren sortuak dira. Alabaina, berdin-berdin erabiliko ditugu i(ra)kasgai horiek. Eskolan, ikasleak euskara batua ongi ikasi beharra du, eta langai horietan euskarri espresak aurkituko ditugu. Berriz diogu garrantzitsuena bereizketa dela, bi ereduak –estandarra eta bertakoa– baliatzea. Bereizketatik franko aberastuta aterako da ikaslea.

##### **Zein da, bada, Baztan-Bidasoako hizkeren ekarpena? (ondorio nagusi zenbait)**

Lehenik eta behin, ohartaraztea dakiguna darabilguna baino aise gehiago dela. Irakasleak etxetik dakarrena ez da galtzera utzi behar.

Bigarrenik, adierazi gogo dugu Baztan-Bidasoatik ere euskara batuak abarasten ahal dela. Eta, jabe gaitezen arestiko «ere» horretaz, zeren eta nagusiki Baztan-Bidasoaz jardun baldin badugu ere, gauza bera edo bertsua erran liteke Euskal Herriko bertze zenbait eskualde nahiz eremuz.

Hortixe heldu da, hain zuzen, hirugarren aportazioa: Euskal Herriko gainerako Baztan-Bidasoetatik ekarpenak egiten ahal dira, estandarrari muzin egin gabe. Frankotan aipatzen da euskalkiek batuak osatzen dutela, eta egia da, baina euskara batuak ere euskalkiak osatzen ahal ditu. Uztartze honetatik ikasgelan erabili beharreko ahozko erregistroak sortzen dira. Gelako ahozko ereduaz ari ez, baina izpirituz antzeko diren «tokiko batuak» ederki azaltzen ditu Koldo Zuazo irakasleak bere hondar lanean: (Zuazo 2005: 238):

Hori dela eta, hizkera bi bereizi behar genituzke euskara batuaren barruan. Ez luke guztiz berbera izan behar Euskal Herri osorako egiten den egunkariko euskarak, eta eskualde jakin baterako egiten den egunkarikoak. Ezta Euskal Herri eta mundu zabaleko euskaldunendako egiten den liburuko euskarak, eta eskualde jakin baterako egiten den liburukoak. Era berean, Euskal Herri osoko pertsona edo elkarteei bidaltzen zaien oharreko euskarak, eta eskualde jakin batekoei bidaltzen zaien oharrekoak ez luke guztiz berbera izan behar. Azken batean eta laburbilduaz, euskara batu mota bat dagokio euskaldunen osotasunari, eta beste bat leku jakin bateko euskaldunei.

Orain arteko jardunean ez da horrelako bereizketarik egin: euskara batu berbera erabili da edonon, edonorekin eta edonoiz, eta hori ez da zuzena eta zuhurra. Batez ere irakaskuntzan ekarri ditu ondorioz gaiztoenak; Hego Euskal Herrian bereziki. Euskara batu berbera erabili da alderdi euskaldunetako eta erdaldunetako ikastetxeetan, euskara batu berbera Bizkaiko herri euskaldunetan edo Nafarroakoetan. Berdin jokatu da Sartaguda herri erdalduneko eta Bera herri nafar euskalduneko ikastoletan edo Oion erdalduneko eta Gernika herri bizkaitar euskalduneko euskaltegietan. Berritot diot: jokabide hori ez da zuzena eta zuhurra.

Hots, eredu estandarrak ematen dituen aukera guztiak baliatuz, ikasgelako ahozko euskara tokian tokiko hizkerak dituzten ñabardurez jantzi eta abarastea da gure proposamena.

### **Hortaz, «tokiko batuak»zer(tarako) dira?**

XXI. mendearen hasiera honetan, etxetik euskaldun diren ikasle gehienek (zer erranik ez, etxetik erdaldun direnek) batez ere eskolako diskurtsoa hartzen dute gogoan. Gogoan eta mintzoan. Ikastolan ikusitako nahiz irakurritako liburua bezalatsu mintzatzen baitira, eta hori, hizkuntza pobretzea da. Arazo honi nolabaiteko konponbidea eman nahirik, «tokiko batuak» ditugu Zuazoren hitzetan, edo artikulua honetan azalduetako gelako ahozko ereduak. Ahozko adierazpenetan, ikasleak etxeko euskararen ekarria baliatzen ahal du, eskolan ikasitako kode mintzatua aberasteko eta osatzeko. Elizondoko ikasto-

lan, konparazio baterako, *datazu* «didazu» erratea ez diogu bertako ikasleari galaraziko, jakinaraziz betiere kode idatzian eta ahozko batuan *didazu/»dida-zu»* dela forma estandarra, gainerako euskaldunek aise ulertuko dutena. Azken batean, tokian tokiko ondare dialektala kontuan hartzen duen ahozko eredia da guk proposatzen duguna.

### **Nafarroako Baztan-Bidasoatik euskara batuari egiten ahal zaizkion zenbait ekarpen zehatzez**

Ondotik, euskara batua aberasten ahal duten zenbait proposamen zerrendatuko ditugu, betiere, guk hobekien ezagutzen dugun eremutik, Nafarroako Baztan-Bidasoatik. Honekin ez dugu erran nahi euskara batuari egin dakizkiokeen ekarpen guztiak ondoko hauek direnik, ez eta aipatzen ez direnak baliagarri ez direnik ere. Gure asmoa apala da: adibide batzuk agertu nahi ditugu, Euskal Herriko gainerako *Baztan-Bidasoetatik* ere bertze ekarpen batzuk egin litezkeela erakusteko. Ezaugarrietatik batzuk ezagunagoak dira *euskara batuaren zirkuitoan* sartu diren neurrian (*Berria, EITB...*); bertze batzuk, berriaz, ez dira ohikoak gure hedabideetan. Adibide guztiak bizi-bizirik daude gure azter-eremuan. Datuak guk bilduak dira.

#### **Izenaren morfologian**

1. Soziatiboaren erabilera izenekin nahiz aditzekin: *ortzegunakin zatten da merkatua* «ortzegunarekin izaten da merkatua». Aditzekin, denbora adieraz gainera, balio kontsektiboa ere hartzen ahal du: *bera nagusi zattekin, itten al tzun nai zuna* «bera nagusi izatearekin/izanik, egiten ahal zuen nahi zuena».
2. *-ketari* atzizkia izenak osatzeko: *esneketari* «esnezale», *ogiketari* «ogi saltzaile», *ardoketari*, *arrainketari*, *egurketaria*... Garraioa nahiz ofizioa adierazten du.
3. *-xko* atzizkia: *ongixko*, *soberaxko*, *beranduxko*, *erixko*, *lodixko*... «aski» nahiz «pixka bat» adierak hartzen dituzte arestikoek.

#### **Aditzaren morfologian**

1. aditza + *gogo* «asmoa izan»: *nik yuango nun eben eske, miño kotxia izortu zait* «nik joan gogo nuen beren bila, baina kotxea izorratu zait»; *ze afaldugo zu* «zer afaldu gogo duzu».

2. *aditza + alde*: *lan ori eñ alde manen dizute sosa* «lan hori egin alde/egitearen truke/egiteagatik emanen dizute sosa»; *ama zaitze alde banun soldadokua ez itteko aukera* «ama zaintze alde/zaintzeagatik banuen soldaduska ez egiteko aukera».

### Sintaxian

1. *Etorri bada etorri* moduko errepikapenak «etorri denetik, etorri denez geroztik»: *etorri bada etorri, ez da isildu; erittu bazen erittu ez zun burua altxatu*.
2. *Jakin izatera, jakitera* moduko baldintzazko perpausak, aditz laguntzailerik eskatzen ez dutenak: *yakitterat, eniken yeus ere erranen* «jakitera/jakin banu ez nian deus ere erranen». *yakin zatera, xira karriko nuen* «jakin izatera/jakin izan banu, zira ekarriko nuen».
3. *ezik, ezen ez* konparazio-perpausetan: *obe da lan ittia ezikan ez ittia* «hobe da lan egitea ezik ez egitea»; *obe da goiz yiki ezen ez gero lasterka ibilli* «hobe da goiz jaiki ezen ez gero lasterka ibili».
4. *agian (ere)* desioa adierazteko: *agiyan ere martxa pollita hartuko du fabrikan; Bentta berri bat paratu te Ibardiñan, ya ongi ateitzen zayoten. Agiyan bai!* «Benta berri bat paratu dute Ibardin, ea ongi ateratzen zaien. Agian bai!»

### Lexikoan

Lexikoari dagokionez, adibide bakan batzuk emanen ditugu sobera ez luzatzeagatik, zeren eta anitz dira multzo honetan sartzen ahal diren hitzak: *Besta Berri* «Corpus Cristi», *bokata* «arroparen garbitzea», *laketu* «ohitu, jarri», *marranta(tu)* «ahotsa lastu, zintzurra hartu», *aldaira* «mudantza», *gernu-debekua* «prostataren eritasuna», *lapastu* «esnea mindu», *soraio* «minik sentitzen ez duen pertsona», *teku* «elikagaiek botatzen duten usain txarra» eta abar.

### Gaizki egindako ekarpenak: erabilera okerrak

Batzuetan, ordea, euskara baturako garraio okerra egin da, eta Baztan-Bidasoako nahiz eremu zabalagoko hainbat ezaugarri gaizki erabiltzen dira maiz. Hona hiru adibide dakartzagu, nahiz eta gehiago ere izan litezkeen:

1. *-ki* aditz atzizkia: hiru adiera izan ditzake atzizki honek, Iñigo, Salaberri & Zubiriren artikuluan ageri den bezalaxe: diosala egiteko (*ze*,

*ariki?* «ari zarete», hanpadura adierazteko *jakinki han nitzela arat joan zen* eta puntukaritasuna adierazteko (*yuaki naiz = noa*). Bigarrena da batez ere komunikabideetan hedatu dena, baina gaizki baliatzen da maiz, perpaus gerundial hutsaren balioa ematen baitzaio: «Beraiekin batera, Berango herriko Ekaitz Hernández gaztea dabil baxujole moduan, hain gaztea **izaki**, etorkizun oparoa ikusten zaiolarik baxujole moduan» (Gaztelupeko hotsak Disketxea); «Bestalde, gehienbat jende gaztea **izaki** ahalmen ekonomiko txikikoak dira» (Boletín aldizkaria). Erabilera egokiaren adibide batzuk emanen ditugu ondotik: *nik uste niken hamabiak zirela, hamarrak izaki; ohartu gabe atia etsi zuen, biatzak bertan izaki; i ostatutan, sosik gabe ibilki*. Gainera, bitxia da, baina «jakinki», egoki, ariki, ibilki, eramaki... ez dira normalean komunikabideetan agertzen. «izaki» bertzerik ez, eta arestian ikusi bezala, adiera okerrean.

2. Ofizioa edo lana adierazten duen *-go* atzizkia: ekialdeko euskalkietan arrunta da (Ibarra 1995: 412, Salaberri & Kamino 2001: 76) *artzain-gua, nekazalgua, sorgingo, alkatego*. Halarik ere, Nafarroako Bidasoaldean *-ko* da aldaera nagusia: *artzainkun ibilli, alkatekua, txoferkuan...* Zenbaitzuek, ordea, ondoko forma hauetan bakarrik erabiltzen dute: «ikaslego», «irakaslego», «hauteslego» e.a. Hots, delako talde horren plurala egiteko. «ikaslego» erratea edo idaztea «ikasletza» erratea/idaztea bezal-bezalakoa da. Ez du zentzurik, alegia.
3. Lexikoan, adibide bat: «arestian». Baztan-Bidasoan nahiz eremu zabalagoan honelako aleak atzematen ahal ditugu *aixtin tor da* «arestian etorri da»; *aixtian erran diat, ba!*. Halarik ere, gaur den egunean, zenbaitetan erabilera okerra egiten da: «Hizkuntz diskriminazioa», «jokabide fundamentalista», «garbiketa etnikoa» eta antzeko ale ederrak entzun eta irakurri ahal izan ditugu **arestian...**» (2005-04-16 Berria egunkaritik hartua); Berriak (05/03/06) «**arestian** plazaratu duena...» (2005-03-16 Berria egunkaritik hartua). Hamar egun pasatu eta ondoren, arestian!

## AIPAMEN BIBLIOGRAFIKOAK

- CAMINO, I. 2005: «Euskal soziolinguistikaren atarian» in P. Etxeberria & H. Knörr (arg.). *Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia*. Iker 17. Euskaltzaindia, Bilbo, 157-187.
- EUSKALTZAINDIA. 2000: «Hiztegi batua», *Euskera* agerkaria, 45-2, 481-757.
- GOIKOETXEA, J.L. 2003: *Euskalkia eta hezkuntza: dakigunetik ez dakigunera euskal diglosia irazian*, Iker 13, Euskaltzaindia, Bilbo.

- IBARRA, O. 1995: *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- IÑIGO, P., SALABERRI, P & ZUBIRI, J.J. 1995: «-Ki aditz-atzizkiaren gainean», *FLV* 69, 243-295.
- IRZAR, P. 1992: *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional* (2 liburuki), Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- NAFARROAKO GOBERNUA. 2004: *Bortzirietan aditutakoak, Bortzirietako ahozko tradizioa*, Iruñea.
- . 2005: *Malerreka solasean. Ahozko tradizioaren bilduma*, Iruñea.
- PAGOLA, R.M. 1992: *Euskal fonetika Nafarroan* (2 liburuki), Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- SALABERRI, P. & KAMINO, P. 2001: «Hitz eratorriak Luzaideko hizkeran», *FLV* 86, 223-262.
- SALABURU, P. 1994: «Euskara batuaren egungo premiak», *Euskera* agerkaria, 39-3, 675-695.
- TRUDGILL, P. 1983: *Accent, Dialect and School*, Arnold, London.
- ZELAIETA, E. 2005: *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa* UPV/EHUko tesi argitaragabea, Vitoria/Gasteiz.
- ZUAZO, K. 2003: *Euskalkiak, herriaren lekukoak*, Elkar, Donostia.
- . 2005: *Euskara batua. Ezina ekinez egina*, Elkar, Donostia.

**AHOZKO EUSKARA:**  
**DAKIGUNA ETA DARABILGUNA-JARDUNALDIA**

*EIBZ (Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide  
Zentroa) – Uharte (Nafarroa)  
2005eko irailaren 29a*

**MAHAI-INGURUA: AHOZKO ADIERAZPENA IKASGELAN**

Parte-hartzaileak: Bittorio Lizarraga, Eratsungo IPko irakaslea.  
Josema Leitza, *Nafarroako Bertsozale Elkartearen* ardura-  
duna.  
Unai Errazkin, *Lizarra ikastolako* irakaslea.

Moderatzailea: Paskual Rekalde.

**SARRERA**

Mahai inguru honetako partaideak honako hauek dira:

1. **Bittorio LIZARRAGA.** Leitzar hau maisua eta euskal filologian lizentziaduna da. Urte luzez (12z) helduen irakaskuntzan aritua, gaur egun 6 urte daramatza Eratsungo eskolan.
  - a. **Gaia:** herri koxkor bateko eskolako gorabeherak.
2. **Josema LEITZA.** Arbizuar honek urte anitz darama bertso munduan (Nafarroako Bertsozale Elkarteko kidea da). Bertsogintza eta hezkuntza uzarturik egiten dute lan Nafarroako ikastetxeetan. Ahozko hizkeraren larriaz kezkatu agertu zaigu beti.
  - a. **Gaia:** bertsolaritzaren curriculumaz
3. **Unai ERRAZKIN.** Lasartear honek urte batzuk daramatza Lizarra inguruan (bizitzen eta lanean). Gaur egun Lizarra Ikastolako euskara eta gaztelaniako irakasle da.
  - a. **Gaia:** ahozketasuna Lizarra Ikastolan nola lantzen den.

\* \* \*

## PARTE-HARTZEAK

### **Bittorio LIZARRAGA: «Herri koxkor bateko eskolako gorabeherak»**

Aurkezpenean esan bezala, ni herri koxkor bateko maisua naiz. Eskola arrunt ttikia da eta, hiru urtetik seigarren maila arterainoko haur guziak elkarrekin egoten dira. Eratsun da aipatu herria. Baina, hango irakasle titularra bannaiz ere, alderdi hartako hiru herrixketako eskolak, hau da, Eratsun, Saldias eta Beintza-Labaien elkarrekin aritzen gara jarduera askotan. Gure egoera berezi samarra baita, ez dakit Nafarroan gureak bezain eskola ttiki asko ba ote den. Denen artean 21 ikasle ditugu. Berezitasun honetan dago astero Doneztebera jaitsi beharra, eta han denak elkarrekin aritzea, eskurtsioak elkarrekin egitea, espezialista berak izatea... Azken buruan hiru herrixketan banatutako eskola komunitatetxoa osatzen dugula esan genezake.

Honetara ezkeroz, esanen dut hiru eskola hauetako, eta gutxi-asko inguru hartako eskola ttikietako egoera, franko poliki ezagutzen dudala.

Irakasleei dagokienean, ia ikasturtero aldatzen da irakaslea. Urte askoan ez dute Eratsunen hainbeste urte egin duen irakaslerik izan, ez dakit sekula izan badute ere, arruntena beste aldera izaten baita. Arrazoi nagusia hauxe da: gisa honetako eskoletan bakarrik aritzeak inor gutxiri eragiten dio atsegin, eta beraz, irakasle funtzionarioek muzin egiten diote. Hortaz, joan-etorrian ibiltzen diren irakasle interinoak izaten dira lanpostu hauek hartzen dituztenak. Horretaz gainera, noizbait irakasleren batek urte bat baino gehiago egin badu, eta segitzeko asmorik baldin badu, zerrendetan atze samarrean baldin bada, aurreagokoren batek hartuko dio lanpostua beste hoberik ezean. Aurten berean Beintza-Labaienen gertatu da.

Bestalde, Euskal Herriko ia nondinahi etortzen zaizkigu irakasleak, jakina, Iparraldetik ez bestetik. Izan ditugu bizkaitarrak, giputzak, Nafarroako Iruñerrikoak... Izan ditugu, era berean, euskara gaitasun eta jakintza maila guzietakoak. Baina, hau ere ez da harritzekoa: euskara hutsean irakatsi behar eta oposaketak gazteleraz egiteko aukera izatea ere... Hauxe baino kontraesan gogorragorik!

Hagitz ongi dakit, esaten ari naizen hau ez dela inolako berritasunik, baina, honetara ezkeroz, agudo aski ohartuko gara berebiziko nekeak dituela den gutxieneko segida izanen duen programa, plangintza edo tankerakorik egitea. Irakaslea eta haurrak elkarrengana jartzerako behar dute urte erdia behinik; euskalkiaren berririk ez badu irakasle etorri berriak, zailtasunak handitu egiten dira. Jakina, ahozkotasuna lantzekoaz gainerako beste edozein programak ere hark adinako zailtasunak izanen ditu segida izateko. Alabaina, testu liburuak, fitxak eta abar idatzirik gelditzen dira, ahozkotasunak berriz, beste ñabardurak ditu, sarri ikusiko ditugunak .



Egiturazko arazo hauei eguneroko eskola arierakoa erantsi behar dizkiegu. Curriculumean aipatzen da ahozkoaren garrantzia; aipatu ere egiten da zer gaitasun bereganatu beharko lituzkeen ikasleak; zehaztuak ageri dira gaitasun horietara ailegatzeko ezinbesteko diren bitarteko gramatikalak... Euskalkien gainean, ordea, deus gutxi azaltzen da. Nolanahi dela ere, taiu antzean eraikitakoa dela irudi du, hitzez behinik behin. Hitzez bai, baina, izatez ez. Gero eta bazterragokoa da ahozkoa, are eta bazterragokoa diskurtso formal eta akademikotik kanpo dagoena.

Hizkuntza eta matematika landu behar dira, emaitzak hobetu behar dira, Finlandiaren pareraino, behinik behin, ailegatu behar dugu heldu den urterako, eta hurrengorako igaro inondik ahalbaitean. Berdin dio zer bitarteko, zenbaterako autonomia izanen duen ikastetxeak, zer gizarte motatan bizi garen...

Bai, baina, hizkuntza delako horretan sartuko da, bada, ahozkotasuna? Ustez bai, baina... Idatzizkoak du lehentasuna eta hoberenean hain hurbileko duen ahozko mintzaira jasoa da haren hurrengo.

Ebaluaketak, barrengoak eta kanpokoak eginen dira; emaitzak zehaztu behar dira, eta emaitzen arabera eskola bakoitzeko kalitate maila jakinen da: behar adinakoak ez badira moldatzeko bideak paratuko dira. Ekoizpena, emaitzak, kalitatea...

Dudarik ez da, egoera honen aurrean, irakasleok gainean dugun zamaren azpian, buru-belarri lan hauetan murgildu behar dugula, beste gainerakoak alde batera utzita. Ez dago beste alderdirik; ez dugu ahozkotasuna lantzeko betarik, eta gainera, jakinaren gainean dago ikasleak behar bezain ongi dakiela mintzatzen edo... Beti ere, eskoletan ez da ahozkotasuna lantzeko inolako plan-gintzarik eskatzen. Hori eskola bakoitzaren esku dago.

Aldez aurreko hau esan ondotik, nirera etorriko naiz. Eratsunen aurkitutako egoera azalduko dut. Deus ere baino lehen, esanen dut egoera berdintsua aurkitu izan dudala beste zenbait eskolatan ere.

Ni ailegatu nintzenean eskolako hurrek bere hartako euskalkian mintzaten ziren eskolaz kanpoko jardueretan eta, beti ere, elkarren artean. Eskolako jardueretan eta nirekin, berriz, inondik ahalean sasieuskara moduko batean mintzaten saiatzen ziren, batez ere, goiko ziklokoak eta hein batean erdiko ziklokoak. Nolabaiteko hizkuntza estandar, batua gisakoa egin nahi zuten, euskalkiko ezaugarriak ere nahasiz; ez baterako ez besterako, inorako ez zena. Hona ezaugarri nabarmenen konparazio ale batzuk: *u* eta *i* ondoren *a* ingurune guzietan (*zakurra*, *tokia*) (1); *j* yodaren ordeztu (*joan* ez *yoan*); neurri tikiagoan despalatalizazioa (*arrituta*, *oilaskoa*, *oina*) mugagabeen beti *ura*, *elurra*, *aizea* eta beste hainbeste kontaezinezko elementu lexikoekin, beren euskal-

---

(1) Ahozko euskararen ispilu izan nahi baitu hemen azaltzen dudan honek, ez dut ortografia estandarra erabiliko tankera honetako erakusgarrietan.

kiaren usarioan ez bezala; gertakizuneko *-ko/-en* bikotearen ordeztu, *-ko/-go* ingurune guzietan; *obeto* obeki-ren; ezer deus-en ordeztu, irurogei, irurogeitamar eta abar irutanogei, irutanogeitamar-ren ordeztu; benetan egi(a)tan eta ziñetan-en ordeztu; jolasa yosteta-ren ordeztu eta abar. Hauetako batzuk jada osotara beretuak dituzte.

Dudarik gabe, eskola ez da aldaketa hauen eragile bakarra: euskalkiak aldatzen dira eta eragileak era askotakoak eta bide askotatik ailegatzen dira. Honen zer pentsatua eman zidan, ordeza. Batez ere, zenbait ikasleren ezinadierazia eta erakusten zuten nahastea ikusita.

Gogoan hartu behar dugu ama hizkuntza euskara duen ikasleak, badakarrera etxetik eskolan garatuko duen hizkuntzaren aldaera bat. Eskola porrota deitzen dugun horren arrazoietako bat, irakaskuntza prozesuan erabiltzen den hizkuntzaren desegokitasuna izaten da. Askotan hizkuntza hau arrotz egiten zaio ikasleari. Honengatik komeniko litzateke hizkuntza estandarerako sarbidea mailakatu izatea eta sekula ez ordezkatzeko hutsa, ezta eskola prozesua bukatzean ere. Hartara ezkeror, askoz ere errazago egingen zaio ikasleari bere hizkeratik abiatuta hizkera formal, akademiko edo zientifikorako pausua. Horretaz gainera, baldin eta ikaslearen garapen osoa badugu helburu, sentimenduak, emozioak, bat bateko pentsamenduak adierazteko bidea eman behar diegu eskolan ere. Idatzizkoaren garapena bera ere, pentsamenduan garatzen dugun mintzotik etortzen da.

Ezin ahaztu baitugu gainera, ikaslea honelako edo halako ingurune sozial eta kulturalan bizi dela, eta hartan ere mintzoa duela komunikatzeko era nagusia. Eskolak eskaintzen dion hizkuntza eta ikaslearen hizkeraren arteko aldea handia baldin bada, arriskua dago komunitateko beste gainerako bizilagunek arrotzarako hartzekoa ikasleak eskolatik daraman hizkuntza (oroitzen dut eskolan aurkitu nuen bideo batean ikusi eta entzundakoa. Ni joan aurreko kurtsoaren batean eginga zen. Bideo horretan herria erakusten ari ziren eskolako ikasleak. Horretarako herrian barrena zebiltzan bazter-txoko guziak grabatuz. Herriko zenbaiti elkarrizketa ere egiten zieten, tartean garai hartako alkateari. Dena batuaz. Halako batean beste galdera askoren artean, «zer jarduera egin behar ditu udaletxeak?» galdetu zion ikasle batek. Gizonak ez zekien zer erantzun, eta azkenean galdera ez zuela ulertzen esan zion. Baina, ikasleak ere ez zuen nonbait oso ongi ulertzen jakin ez zuelako beste era batera esaten. Galdera erantzunik gabe geratu zen, jakina). Arrisku hau ez da balizkoa, gertatzen baita: askotan izaten da bere ama-hizkuntzan eskolatu gabekoak direla-koz bizilagun horiek, eta ezin sinetsi izaten dutelako euskara beste diskurtso mota batzuetako balio dezakeela. Makina bat aldiz entzun dugu, «oingo euskerari berri au eztago entenditzeik». Azken buruan, egoera diglosiko gogor hauetan gertatzen ohi den konplexuaren ondorioa da. Baina, beste batzuetan eskolak berak zokoratzen du kode estandar eta ikasitiki ate dagoena. Hizkuntzari izaera aldaezinari buruzko usteak, eta kode ez-formalei buruzkoek zeresan handia izan dute zenbait irakasle hedatutako aurreiritzi hauetan. Orain

dela urte batzuk, bilera batean, gure mutikoaren euskara irakasleak esan zigun, azken buruan euskalkiak euskara batuaren degenerazioa besterik ez zirela. Gurasoekin egindako bilera batean euskara batua eta euskalkiaren gaia azaldu zenean, horrelako erantzunak jaso nituen: «gure euskara txarra baita, guk ezta-kigu ongi itzitten, guk erdaz itten dugu erdie, guk entenditu esaten dugu eta gure umek ulertu, ori bai euskaaz». Ziur aski ere, maiz entzunak dituzue denak gisa honetako esaldiak.

Eskolan ditugun irizpide nagusiak hizkuntzari dagokionez.

Elkarren arteko hizkera euskalkia da. Nik horretan suerte handixkoa dut, ni Leitzarra bainaiz, eta hango euskalkiarekin ez baitugu alde izugarririk.

Euskara estandarerako zubia pixkan-pixkan eraikiz joaten gara: haur hezkuntzan hizkuntza estandarrekiko lehendabiziko harremana idazketa prozesuan hasten direnean izaten dute, eta kantak ikasten dituztenean. Bestela, dena euskalkiko hizkeran egiten dute.

Ahokotasuna, eta beti ere, euskalkia dela bide, komunean egiten ditugun joko, ipuin kontaketa, eta kontakizun guzietan erabiltzen dugu. Gogoan har haur guziak elkarrekin daudela, halako jarduerak denok batera egiten ditugula; jakina, bakoitzari berea emanez. Horrela bada, gure plangintza modukoan egunero kontatzen dugu bezperan egindakoa, baina, bortxatu gabe bakarren batek deus esatekorik ez badu, edo esan nahi ez badu, dagoela lasai. Hala ere, beti sortzen da tira egiteko moduko haritxoren bat eta hari lotzen zaizkio denak (ez dakit nor erori eta min hartu zuela; herriko norbait eri eta ospitalera eraman dutela; halakoren zakurrak norbaiti hozka egin diola... ). Gai desberdin asko azaltzen da. Hau, eskuarki saio motza izaten da, ordu laurdenekoa egunero. Asteburu ondokoa, ordea, luzeagoa izaten da; ordu erdikoa. Horretan bai, saiatzten naiz denek zerbait konta dezaten.

Ipuin kontaketak astean behin egiten ditugu. Neronek kontatzen diet ipuinen bat, beti ere, beren euskalkian. Saio horretaz baliatzen gara, alde batetik ulermena lantzeko galderak nik egin beharrean elkarri egiteko. Hau zikloka banatuta egiten dugu: txandaka handiek ttikiei egin behar dizkie galderak eta hurrengoan ttikiek handiei. Ttkiek ari naizela esanen dut bost urterekin hasten direla ariera honetan. Gero zenbaitetan antzestu egiten dugu ipuina; edo bukagabea baldin bada bukatu; edo hasieragabea baldin bada, hasi. Azken ariketa hauek lehenbiziko ahoz eta gero idatziz egin behar izaten dituzte erdi eta goi ziklokoek. Bestelako ariketa berezirik egin behar ez badugu, ipuina txandaka irakurtzeko ematen diet eta, horrela kode idatzia ere lantzen dugu.

Kontakizun ekoizpena hiru sailetan banatua dugu: ikasia duten edozein ipuin, istorio edo bestelako edozein kontakizun kontatu; norberak asmatutako ipuin, istorio edo kontakizuna kontatu; etxekoen artean jasotako ipuin, istorio edo kontakizunen bat kontatu. Baldintza bakarria beren euskalkian kontatzea izaten da. Gero, zenbaitetan ipuin hauek idazteko baliatzen ditugu. Jakina, as-

kotan ikasle batek baino gehiagok kontaktzen dute ipuin bera. Baina ikasle ba-koitzaren kontraera berea baizik ez da.

Maiztasuna aldatu egiten da ikasturtearen, ikasleen mailaren eta beste hainbeste eragileren arabera; beti ere, ziklo bukaerero egiten dugu, eta horrelakoetan grabatu egiten dugu, nolabaiteko ebaluaketa egiteko. Oso ondorio interesgarriak eta aberasgarriak ateratzen dira ariera hauetatik.

Jokoak, kantak eta abar ere sartzen ditugu ahozkotasanari berariaz dago-kion atalean. Jokoetan bai kanpokoak, bai barrengoak, hala nola: karta joko-ak, partxisa, xakea...

Ahozko hizketa, ordea, eskolako jarduera eta asignatura guzietan sartzen da. Bai matematikan, bai ingurunean, bai hizkuntzan eman behar izaten diren azalpenak, ulertzeko moduko hizkeran ematen saiatzen gara. Ez nahita nahiez euskara sinplean, baizik eta bere hizkeratik ahalik eta hurbilenean dagoen hizkeran. Baina ez gara, horretan bakarra gelditzen, urratuz baikoaz hizkuntza jasagoak eskatzen duen bidea: sinonimoak erabiliz eta ikasiz; pixkan-pixkan arrazonatutako diskurtso bati dagozkion egitura lotuagoak eta luzeagoak sartuz; eta kopularen erabilera gehiegizkoa baztertu eta mailaz maila lokariru eta juntagailu gehiago sartuz. Arrunt egokia da ahozkotasuna lantzeko ingurunea, askotan hurbileko gaiak azaltzen baitira. Horrelakoetan beti aprobeztatzen dugu bizi garen inguruneak ematen digun aukera. Gaiaren aurkezpena eta lehenbiziko azalpenak egindakoan, hurrengo urratsa etxekoei, herrikoren bati edo gaiarekin lotura estua duen norbaiti galdetzea izaten da eta informazioa jasotzeko. Arruntean hiztegiari dagozkionak baizik ez dira izaten galderak, baina beste batzuetan prozesua azaltzeko edo beste gisa batekoak. Gero ikasge-lan jasotakoa kontatu behar izaten dute eta testuliburuan edo, ikusitakoarekin konparatzen dugu.

Bukatzeko hiru gauza nabarmendu nahi nituzke: batetik hitz egitea eta idaztea gauza desberdinak direla; bestetik ikasleak ongi bereizten dituela bi kodeak: ahozkoa eta idatzizkoa; azkenik ahozkotasuna eskolako ariera guzietan lantzen ez badugu, eta gainera hizkuntza ikasgaien bere tokia ematen ez badiogu, nekez lortuko ditugu euskaldun osoak. Behar bada, irakurtzen, idazten eta lurraren sorrera ongi azalduko digute, baina, aurki, ez dute jakinen ez jostetan, ez euskaraz irri egiten, ez haserretzen eta ez...

### **Josema LEITZA: «Bertsolaritzaren curriculumaz» (laburpena)**

#### ***Bertsozale Elkartearen lan esperientzia***

1986an hasi ginen irakaskuntzan lanean orduko OHO zenean ikasturteko sei bat orduko ikastaroa emanez 8. mailara arte. Horrelaxe jarraitu genuen hari-rik eta Hezkuntzako erreforma indarrean sartu arte. Egokitzapen horrek, ahoz-

ko hizkeraren larriaz ohartarazten zuen kezkaekin bat egin zuen denboran (1996). Geroztik, bi lan ildoak batera joan dira Elkarte barruan: bertsogintzak ahozko hizkeraren egokitasunari egin diezaiokeen ekarpena landuz. Curriculum bat garatu dugu Lehen Hezkuntzarako eta 100 Aho-fitxa osatu dira DBHn Andoni Egaña eta Joxerra Gartziaren metodoa aplikatzeko. Batetik, bertsogintzaren oinarritzko ezagutza (Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan) eta, bestetik, ahozko hizkera egokirako baliabide eta teknikak, bertsoko adibideetan oinarriturik (DBH).

2000az geroztik, Nafarroan, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan 30 orduko ikastaroa eskaintzen dugu 30 ikastetxeetan.

### ***Parte-hartzearen laburpena***

- Bertsolaritzaren curriculum: zer da? Bere baitan biltzen dituen lau atalak:
  - Bertsogintza
  - Euskararen normalizazioari ekarpena
  - Trebetasun pertsonalak
  - Musika arloa
- Ikastaroaren ezaugarriak: norbanakoaren sormena da gakoa. Ikastaroa, ikaslea ahozko sormen hori bultzatzeko tresna baten jabe izan dadin antolatua dago. Bertsoa bitarteko bat baino ez da, irratigintza, antzerkigintza edo ipuin kontalaritza izan daitezkeen bezalaxe.
- Bertsoaren «abantailak» sormena bultzatzeko: bat batean sortzen da eta bat batean gozatu, berehalakotasuna; kultur mugimendu bizia da, neurri batean «prestigiduna»; sormena indibiduala izan arren, taldean aritzea ezinbestekoa da; ez du azpiegitura handirik behar; teknika menderatzea erraza da eta bertsoak egin gabe ere, teknika horrek beste ahozko produkzio batzuk bultzatzen ditu (zirtoa, txistea, ipuin laburrak..)
- Ahozko hizkeraren motela herri euskaldunetan ere errotua dago.

### **Unai ERRAZKIN: «Ahozkotasuna Lizarra Ikastolan» (laburpena)**

1. Ahozkotasuna bereziki lantzeko arrazoiak
2. Ahozkotasunak urteko plan estrategikoan duen presentzia
  - a. Eredu ez kurrikularra: klasean egiten den lanaz gain, eremu ez kurrikularren bidez ahozkotasuna indartzeko martxan ditugun helburu/ekintzak zeintzuk diren eta hauen nondik norakoak.

b. Eremu kurrikularra:

- i. Planteamendu orokorra: urteko plan estrategikoan ahozkotasunarekin loturiko helburu nagusiak eta hori gauzatzeko ekintzak zeintzuk diren azaltzea.
- ii. Klasetako planteamendua: ahozkotasuna, klasean lantzeko jarraitzen ditugun pausoak eta metodologia.